

Euskaraz idatzikato aldizkarien errolda: 1960-1999

(Register of Journals written in Basque: 1960-1999)

Muxika, Joxemari

Eusko Ikaskuntza. Miramar Jauregia Miraconcha, 48.
20007 Donostia

BIBLID [1137-4462 (2002), 9; 9-110]

Jaso: 00.12.15

Onartu: 02.01.25

1960-1999 urte bitartean argitaraturiko euskal prentsaren berri (euskaraz idatzitako aldizkariak, alegia) ematen da hemen. Kayser-en metodoari jarraituz, aldizkarien fitxa bana aipatzen da. Horrela jarraia ematen zaie Eusko Ikaskuntzak argitaratutako bi lani, Adolfo Ruiz de Gaunaren eta Javier Díaz Nociren erroldeei hain zuzen ere. Ikerketa emaitza orokor batzuekin osatzen da.

Giltza-hitzak: Kazetaritza. Hemerografía. Euskara.

Se ofrece en el presente trabajo un catálogo de las publicaciones periódicas escritas en euskera de entre los años 1960 y 1999. Se sigue el método de Kayser y se consigna una ficha por cada publicación. De esta manera se pretende continuar la labor emprendida desde hace algunos años por la Sociedad de Estudios Vascos, en concreto a los catálogos de Adolfo Ruiz de Gauna y Javier Díaz Noci. La investigación se completa con una serie de conclusiones generales.

Palabras clave: Periodismo. Hemerografía. Euskera.

On offre, dans ce travail, un catalogue des publications périodiques écrites en euskera entre les années 1960 et 1999. On suit la méthode de Kayser et l'on attribue une fiche à chaque publication. On tente ainsi de continuer le travail entrepris depuis quelques années déjà par la Société d'Etudes Basques, plus précisément les catalogues d'Adolfo Ruiz de Gauna et de Javier Díaz Noci. La recherche est complétée par une série de conclusions générales.

Mots Clés: Journalisme. Héméographie. Euskera.

AURKIBIDEA

1. SARRERA.....	11
2. AZTERKETAREN METODOLOGIA	14
2.1. FITXAREN ALDAGAIK	14
2.2. AGIRITEGIEN ETA LIBURUTEGIEN DEITURA.....	17
3. ALDIZKARIEN ERROLDA	19
4. SAILKAPENAK	83
4.1. SORRERA URTEAREN ARABERA	83
4.2. HERRIALDEEN ETA HERRIEN ARABERA	86
4.3. GAIEN ARABERA	88
4.4. MAIZTASUNAREN ARABERA	90
4.5. TIRADAREN ARABERA.....	93
5. ERROLDAREN EMAITZEI BURUZKO ONDORIO BATZUK	95
5.1. SARRERA	95
5.2. BILAKAERA.....	95
5.2.1. Bilakaera orokorra	95
5.2.2. Herrialdeka bilakaera	97
5.2.3. Edukien araberako bilakaera	99
5.2.4. Eremuen bilakaera.....	101
5.2.5. Herrialdekako egoera.....	101
5.3. ZABALKUNDEA	102
5.3.1. Argitalpenen maiztasuna	102
5.3.2. Argitalpenen tirada	103
5.3.3. Euskarazko aldizkariaren zabalkundea	103
5.4. ALDIZKARIEN ZABALKUNDEA GAIKA ALDERATUTA.....	107
5.5. FINANTZAKETARI BURUZKO BEREIZKETAK	108
6. BIBLIOGRAFIA	108

1. SARRERA

Euskaraz idatzitako aldizkarien berri jakiteko (zabalkundea, edukia, publizitate eta abar) eguneratutako katalogo osorik ez dugu aurkitu. Jakin-min horri erantzutea premiazkoa dela pentsatu dugu eta nabaritu dugun gabezia asetzeari izan da lan honetara bultzatu gaituena.

Aurrez egindako errolda eta katalogoak egon badaude, baina, gero ikusiko dugun bezala, argitaratutako katalogo eta errolda horietako gehienetan ez da bereizten euskal prentsa eta euskaraz idatzitako prentsa, Diaz Nociren *Euskarazko aldizkari, egutegi eta almanaken errolda (1834-1959)*¹ liburuan izan ezik. Gainera, dauden katalogoak ez daude eguneratuak.

Aurretik eginak dauden erroldak bilatzerakoan topatu ditugun lanen artean, aipatu beharrekoak dira jarraian jartzen ditugun hauen lanak: Adolfo Ruiz de Gaunaren *Catálogo de Publicaciones Periódicas vascas de los siglos XIX y XX*², Javier Diaz Nociren *Euskarazko aldizkari, egutegi eta almanaken errolda (1834-1959)*, Joxe Felix Diaz de Tuestaren *Euskarazko prentsa idatzia*³ eta Javier Diaz Nociren *Publicaciones periódicas en lengua vasca en la Biblioteca de Estudios Vascos de la Universidad de Reno, Nevada*⁴.

Ruiz de Gaunak 1991n argitaratutako⁵ lanean dioenez, nabarmena da ez dagoela euskarazko aldizkarien erroldarik. Bere liburuaren sarreran⁶ zehaztasun handiz ematen du egoeraren berri. Hemen errepikatzen jardun gabe, bertara jotzea gomendatuko diogu interesa duenari.

Javier Diaz Nocik bi sailetan banatua dauka bere lana: 1834-1939 eta 1939-1959. Lehendabiziko partean Gerra Zibil aurreko aldizkariak azaltzen dira: euskal prentsaren hasieratik gerra bukatu artekoak. Bigarren partean hurrengo bi hamarkadak datoz. Berak ederki azaltzen du Euskal Herriko komunikabideen garapenean 1937ko Gerrak eragin zuen haustura ikaragarria; horrez gain, zehaztasunez bereizten ditu euskaraz egindako aldizkariak eta beste hizkuntzetan idatziak.

Beste ikerlan batzuek⁷ herri aldizkarietarako buruzko izenak ematen dituzte eta hainbat ezagutu ahal izan ditugu bide horretatik, baina zerrendan jarritako al-

1. DIAZ NOCI, Javier. *Euskarazko aldizkari, egutegi eta almanaken Errolda (1834-1959)*, Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1994.

2. RUIZ DE GAUNA, Adolfo. *Catálogo de Publicaciones Púlicas vascas de los siglos XIX y XX*, Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1991.

3. DIAZ DE TUESTA, Jose Felix. *Euskarazko prentsa idatzia*, Arrasate, 1996. (Euskararen Aholku Batzordearen enkarguz egindako txostena, argitaratugabea).

4. DIAZ NOCI, Javier. "Publicaciones periódicas en lengua vasca en la Biblioteca de Estudios Vascos de la Universidad de Reno, Nevada". *Mediatika* (7. zenb), Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1999.

5. RUIZ DE GAUNA, Adolfo. Lehengo bera; 11. or.

6. RUIZ DE GAUNA, Adolfo. Lehengo bera; 12-15 orr.

7. DIAZ DE TUESTA, Jose Felix. Lehengo bera.

ELKOROBEREZIBAR, Migel Angel. "Publizitatea euskarazko aldizkarietan". *Herri Komunikabideei Buruzko II. Jardunaldiak*, Arrasate: Arko, 1993.

dizkari horiek non aurki daitezkeen ez dute erakusten, hori ez zelako euren lanaren helburua. Beraz, ez dituzte betetzen katalogo baten ezaugarriak.

Aipatutako lanetaz gain, liburutegi batzuek badituzte euren agiritegi-tako dokumentuen katalogoak⁸. Oinarri ona izan dira azterketa egiteko, baina haue-tan datozen datuak katalogoa egin duen agiritegiak edo liburutegiak bere fondoan dituen aldizkariak bakarrik dira. Katalogo horiek berriak dira, azken urteetan eginak. Aldizkari asko dira inongo agiritegi publikotan agertzen ez direnak.

Aipatutako katalogoek asko erraztu digute lana. Hala ere, harrigarria irudi-tu zaigu, eta hutsune handia deritzogu, fitxatutako aldizkarien edukien hizkunt-zaz inolako argitasunik ez ematea.

Euskarazko aldizkariak erroldatzea da gure helburua: alde batetik, gaur egun gaztelaniazkoak eta euskarazkoak batera egitea lan izugarria iruditu zai-gulako, eta, bestetik, euskarazko aldizkarien unibertsoa ezagutzeko garaia de-la pentsatzen dugulako. Era horretan, elkarren artean euskaraz komunikatu nahi dutenek ezagutu dezakete eurentzako dagoen eskaintza berezia.

Beraz, euskara hutsean idatzitako aldizkariak hartu ditugu aztergai. Aldiz-kari bakarren batean laburpenak beste hizkuntza batzuetan ematen dituzten arren, horietan ere euskaraz idatzita ematen denaz gain, ez dago aparteko beste informaziorik, euskarazkoa errepikatu egiten delako⁹. Gaztelaniaz eta euskaraz osotara errepikatzen direnen artean buletin ofizialak daude, elebidu-nak goitik behera, hasi eta buka. Horiek ez ditugu gure erroldan sartu euska-raz eta gaztelaniaz daudelako.

Aztertutako denboraldiari buruzko muga 1960 eta 1999. urte artekoa izan da, biak barne; 1960. urtea baino lehen sortuak izanagatik, gaur egun argita-ratzen direnak, edo zirenak, eta geroztik sortu arren, desagertu direnak, edo oraindik argitaratzen direnak, barnean sartzen dira. Aurreko urteetako errolda Adolfo Ruiz de Gaunak eta Javier Diaz Nocik egin zituztenez, errolda ho-nek, partzialki bederen, euskaraz argitaratutakoei jarraipena ematen dien us-tetan aurkezten dugu.

Izenak adierazten duen moduan, aldizkariak aldizkakotasuna dute ezauga-rrietako bat, eta zenbakia izatea beste bat, "nahiz orri bikoia izan"¹⁰ aldizkaria.

8. *Aldizkako argitalpenen Katalogoa*. Donostia: Habe Liburutegia, 1998.

Sailkako Argitalpenen Katalogoa-Catálogo de Publicaciones Seriadadas, Koldo Mitxelena Kultu-runea, Liburutegia-Biblioteca, Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, 1996.

Catálogo de publicaciones periódicas de la Biblioteca de los Benedictinos de Lazkao, Laz-kaio: Biblioteca Benedictinos Lazkao, 1996.

9. *Anaitasuna*, Tolosan argitaratutakoa, eta *Karmel* aldizkarietan gaztelaniaz zertxobait sart-zeko irizpidea erabiltzen zuten. Hauek eta beste aldizkari batzuek erabilitako trikimailuetako bat izan zen euskaraz argitaratu ahal izateko, Francoren garaiko egoera politikoak horrela eraginik.

10. AGIRRE, Juan Jose. *Catálogo de publicaciones periódicas de la Biblioteca de los Bene-dictinos de Lazkao*, Lazkao: Biblioteca Benedictinos Lazkao, 1998; 2-3 orr.

Aldizkakoak izan daitezkeen arren, ez ditugu sartu almanakak, urtekariak, egutegiak, gidak, txostenak, aurrekontuak, aktak, programak, azterketak, le-kukotzak eta abar edukizat dituzten agerpenak. Bestalde, hartu ditugunak ur-tean bi alditan, gutxienez, argitaratzen dira.

Era guztietako gaiak dituzten aldizkariak hartu ditugu: literatura, kirola, er-lijioa, albisteak, komikia eta ipuinak, kultura, hezkuntza, bertsolaritza, sozio-linguistika, eta baita beste edozein arloren ingurukoak ere. Euskaraz idatzita-ko aldizkariak diren neurrian, guztiak sartu ditugu.

Azken hamarkada honetan sortu diren aldizkari garrantzitsuenen artean, gehienak hurbileko informazioa oinarri duten aldizkariak dira: herrikoak-edo eskualdekoak- eta ikastetxeetako aldizkariak. Katalogoetan aldizkari hauetatik bakarren bat besterik ez da agertzen.

Guk erroldatu ditugun euskaraz idatzitako aldizkarietako bakar bat ere ez dago OJD-ren¹¹ erregistroetan, eta ezta antzeko beste inongo erregistrotan ere.

Aldizkariak, argiltapen biziak direnez, etenik gabeko eraldakuntzak izan dit-zakete. Horregatik, lan honetan agertzen den errealtatea doitu izan arren, momentu bateko argazkia da eta denbora gutxira aldizkarien hainbat aldagai edo ezaugarri alda daitezke. Beraz, horrelako lan batek aldi oro aztertu eta eguneratu beharra du.

Errolda hau egiteko arakatu ditugun guneak asko izan dira. Ezagutzen ditu-gun katalogoet gain, hainbat liburutegitako hemeroteka arakatu dugu, eta bai-ta beste hainbat aldizkariaren egoitzetako atea jo ere. Agiritegi eta liburutegie-tara hurbiltzea erraza bada ere, ez da hala izan beste guztiekin hartu-emana izatea. Agiritegi nahiz liburutegiak gure aukeran izan ditugu eta nahiko samu-rra izan da lana. Hurbileko aldizkari eta ikastetxe erakundeak, kanpoko ikerlari baten beharrei erantzutea euren eginkizunen artean ez dutenez, ez daude ho-rrretarako prestatuta eta pertsona egokiarekin harremanetan jartzeko nahikoa zailtasun izan dugu. Behin harremanetan jarriz gero, esan beharra dago oso harrera ona izan dugula eta badugu zer eskertu, hauek izan baitira, gehienu-tan, erroldatu ditugun aldizkariaren informazio iturri. Fitxak betetzeko lan neket-su eta luze honetan, harrera oso ona izan dugu eta lagundu diguten guztiei be-netan eskerrak ematen dizkiegu. Euren laguntzarik gabe ezinezko izango zen lan hau burutzea.

Aipatzekoa da agiritegietan eskoletako prentsari dagozkion aldizkari gutxi agertzen direla. Hutsune nabarmena da. Garai bateko ekimenaren adierazle ezin hobea den aldetik, ez gordetzeak galera ekartzen du.

Euskaraz idatzitako aldizkariak erroldatzea xede duen lan honen antolake-tan pauso hauek eman ditugu: lehenengo, errolda egiteko metodologia zehaz-tu dugu; ondoren, errolda bera egin dugu, eta, azkenik, erroldaren emaitzei bu-

11. OJD: "Oficina de Justificación de la Difusión".

ruzko ondorioak ateratzen saiatu gara. Atera ditugun ondorioak orokorrak dira eta gehiago landu daitezke, baina hori ez zen gure lanaren helburua; egiteko hori beste baterako utziko dugu.

2. AZTERKETAREN METODOLOGIA

2.1. Fitxaren aldagaiak

Adolfo Ruiz de Gaunak dioenez errolda batek bi helburu bete behar ditu¹²: aldizkariaren bereizgarri diren ezaugarriak eman eta aldizkariak non aurki daitezkeen adieraztea. Errolda hau egiteko gertatu dugun fitxa osatzeko helburu berberak hartu ditugu, egokiak direla uste dugu-eta.

Errolda-fitxa egiteko, Jacques Kayserren¹³ ereduari jarraituz, Javier Diaz Nociren *Euskarazko aldizkari, egutegi eta almanaken Errolda (1834-1959)* liburua hartu dugu oinarri. Berak erabilitako fitxari aldakuntza txiki batzuk egin, eta hauek dira errolda egiteko hartu ditugun aldagaiak:

1. *Izenburua.*
2. *Azpizenburua edo izenburuarekin doazen argibide edo osagarriak.*
3. *Helbidea.*

Egoitzaren helbidearekin batera, telefonoa, faxa eta e-posta.

4. *Aldizkakotasuna edo maiztasuna.*
5. *Argitaratze eguna edo astea.*

Ateratzen den eguna edo astea. Astekarien edo hamabostekariaren kasuan, kaleratzen den eguna, eta hilabetekariei dagokienez, kaleratzen den astea adierazten saiatu gara. Bakanagokoetan, erregularitate gabe argitaratzen direnez, aldagai horrek esanahia galdu egiten du.

6. *Lehen zenbakiaren urtea eta ISSN¹⁴.*

ISSN aldizkarian agertzen denean.

7. *Argitaratzen den edo desagertua den.*
8. *Hedapena.*

Aldizkariak duen hedapena adierazteko, bost eremu erabili ditugu: *udalerria, eskualdea, herrialdea-probintzia, nazionala* eta *kideak*. Lehenengo

12. RUIZ DE GAUNA, A. Lehengoa bera; 15. or.

13. KAYSER, Jacques. *El Diario Francés*, Bartzelona: A.T.E., 1982.

14. ISSN: International Standard Serials Number.

laurak eremu ezaguna eta jakina dute. *Kideak* eremuan, ordea, beste eremuetan ez bezela esparru geografiko ez ezaguneko zabalkundea duten aldizkariak sartzen ditugu. Hau da berripaperen hedapenean eta eskoletako prentsarenean kasu askotan gertatzen dena. Gehienetan, edo ia beti, bazkideak, laguntzaileak edo gurasoak dituen erakunde bateko informazioari buruzkoak dira. Elkartearen edo ikastetxearen bazkideei edo ikasle-familieei zuzendutakoak dira hauek. Eremu horretako hedapenari *kideak* deitu diogu. Muga hauek jartzeak ez du esan nahi aldizkariak eremu horretara bakarrik mugatzen direnik; izendatutako eremuetatik kanpo ere aleren batzuk zabal daitezke.

9. *Ale kopurua edo tirada.*

Idatzizkoetan ale kopurua, eta aldizkari digitaletan webguneen¹⁵ ikustaldiak.

10. *Salmenta.*

Saldu egiten diren edo doakoak diren adierazi dugu. Publizitatea egiten duten edo diru laguntza jasotzen duten ere adierazi dugu.

11. *Formatuaren neurriak milimetrotan.*

12. *Orrialde kopurua.*

13. *Argitaratzailea edo jabea.*

14. *Inprimatzailea.*

15. *Eragilea edo zuzendaria.*

16. *Edukia edo mota.*

Erroldatu ditugun aldizkari guztiak ondorengo eduki zerrendaren arabera identifikatu ditugu:

16.1. *Hurbileko aldizkaria*¹⁶:

Herriko edo tokiko informazioa dakarrena eta bertan egina den aldizkaria.

16.2. *Informazio orokorra.*

Bere informazioarekin estaldura nazionala ematen duena.

15. Webgunea duten aldizkari ikustaldiak jakitea egoki iruditzen zaigu. Hala ere, saiatu arren, eta webgunea oso aldizkari gutxi badute ere, ezinezkoa izan da hauek dituzten ikustaldiak jakitea.

16. LARRAÑAGA, Jotxo; GABANTXO, Miren eta ARANGUREN, Asier. "Sei herri aldizkari: edukin azterketaren bidetik hurbilketa bat". *Mediatika* (6. Zenb), Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1997; 37-40 orr.

OREGI, Sabin. "Euskarazko herri prentsa. Banaketa eta finantziaketa hurbilpena". *Mediatika* (6. zenb.), Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1997; 42-50 orr.

16.3. *Berripapera.*

Erakunde batek kanpora jakinarazi nahi dituen albisteak dakartzan aldizkaria.

16.4. *Eskoletako prentsa.*

Eurek "prentsa eskolarra" deitzen diote. Batez ere ikasleen idatz sormenari eragiteko egindako lanak dira. Kazetaritza genero guztiak lantzen dituzte. Lan hauetaz gain, irakaskuntza eta ikastetxeari buruzko albisteez osatutako aldizkariak dira.

16.5. *Kultura orokorra.*

Kultura, saiakera, gizartea edo beste gai batzuk orokorrean ematen dituen.

16.6. *Komikiak eta ipuinak.*

Haur eta gaztetxoan aldizkari entretenigarriak.

16.7. *Literatura.*

16.8. *Hezkuntza.*

16.9. *Bereziak.*

Politikari, bertsolaritzari, kirolari, zuzenbideari, soziolinguistikari, zientzia herritartzeari, erlijioari, eta beste hainbat alorri zuzendutako aldizkariak.

17. *Helburua.*

18. *Darabilten hizkuntza.*

Aldagai hau ez dugu erabili, azterketa honetan euskaraz argitaratuak bakarrik jaso direlako.

19. *Euskara ereduak.*

Euskara batuan edo zer euskalkitan argitaratzen den.

20. *Euskaraz idatziako ehunekoa.*

Euskaraz idatzitako ehunekoa ez dugu sartu, aldizkarian agertzen diren artikulua guztiak euskaraz idatziak direlako. Artikuluren baten laburpenen bat beste hizkuntza batean aurkezten duen aldizkaria ere euskara hutsean balego bezala hartu dugu.

21. *Bilduma non gordetzen den.*

Horretarako erabilitako deitura laburren esanahiak geroago argitzen ditugu. Begiratu 18. orrialdean.

22. Bibliografia.

Fitxaren puntu honetan ez dugu bibliografiarik aipatu. Berezitasun zehatzen bat adierazi beharra izan denean, fitxaren 23. puntua erabili dugu.

23. Oharrak.

Honako zehaztasun hauek sartu ditugu: banaketari buruzkoak, etenaldiak, eta argigarri den beste aipamen bereziren bat edo beste.

Banaketari buruz egin dugun sailkapena honako iritzi hauek jarraituz egin dugu: hartzailea bera argitaratzaileari eskaria egitera behartzen den kasuan, *harpidetza bidezko banaketa* deitu dugu. Doako harpidetza izan edo ordaindutakoa izan, berdin. Argitaratzaileak norentzat den zehaztu gabe zabaltzen duenean, ez dugu harpidetza deitu. Harpidetza bidezko banaketa era ezberdinetan eginga izan daiteke, horregatik, postaz banatzen denean bakarrik zehaztu dugu, *posta bidezko banaketa* deituz. Beraz, gure iritzi postaz banatzeak harpidetza berarekin darama; beste banaketa mota batzuk: *zerbitzugune bidezko banaketa*, hau da, denda, taberna, okindegi, eskola eta abarretan aldizkaria jendearen eskura utzi eta interesatuak berak hartzen duen zabalkunde sistema. Eta *gutunontziratze bidezko banaketa* eta *eskuz eskuko banaketa* dira besteak.

Beraz, eredutzat hartu dugun fitxatik 18., 20. eta 22. aldagaiak izan ezik beste guztiak aintzat hartu dira errolda egitekoan.

Batzuetan, fitxaren parte guztiak betetzeko informazioa batzea ezinezkoa izan zaigu. Kasu horietan, eskuratu dugun informazioarekin fitxa betetzen jarraitu dugu eta informazio gabeko aldagaiaren zenbakia ezabatu, tokia betetzeko besteetarako ez duelako balio.

2.2. Agiritegien eta liburutegien deitura eta zerrenda

Bildumak gordetzen diren guneen izenak erroldan jartzeko, agiritegien eta liburutegien deitura estandarren bila ibili gara eta ez dugu aurkitu¹⁷.

Gure azterketan ikusi ahal izan dugunez, aldizkari beraren bildumak leku baten baino gehiagotan agertzen dira, baina gure xedea aldizkari bakoitzaren bilduma jasoa dagoen leku bat, gutxienez, adieraztea izan da. Beraz, hainbat aldizkari hemen esaten den baino leku gehiagotan ere egon daiteke jasoa.

Gure lan honetarako erabili ditugun liburutegi, agiritegi, katalogo eta guneei honela deitu diegu:

17. RUIZ DE GAUNA, Adolfo. *Catálogo de Publicaciones Periódicas vascas de los siglos XIX y XX*. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1991. Katalogo hau egiteko erabili zuen deituren zerrenda Ruiz de Gaunak berak eginga da. Ikus 389-400 orr.

AGN: Archivo General de Navarra, Iruñea.
ARA: Arantzazuko Liburutegia, Oñati.
ARG: Adolfo Ruiz de Gauna^{18*}.
BEL: Belokeko Abadetxea, Ahurti.
BB: Bidakruzeta Biblioteka, Bilbo.
BBL: Lazkaoko Beneditarren Biblioteka*, Lazkao.
DKA: Donostiako Kaputxinoen Abadetxea.
EGO: Aldizkari bakoitzaren egoitza.
EHU: EHU-UPV, Leioa.
EKE: Euskal Kultur Erakundea, Uztaritze.
EST: Estibalitzeko Abadetxea, Gasteiz.
EUS: Euskaltzaindia: Azkue eta Apraiz Bibliotekak.
HABE: Habe Liburutegia*, Donostia.
HAEE: HAEE-IVAP, Oñati.
JDN: Javier Diaz Noci*.
JMS: Jose Maria Satrustegi, Urdiain.
KM: Koldo Mitxelena Kulturunea, Donostia.
KXX: Kanboko Xalbador Kolegioa, Kanbo.
LAB: Euskal Biblioteka-Labayru Ikastegia, Derio.
LEK: Lekarotzeko Kaputxinoen Ikastegia, Lekarotz.
PAT: Pedagogia Aholkularitza Teknikoa.
RUB: Renoko Unibertsitateko Eusko Ikaskuntzetako Biblioteka, Nevada.
SEM: Donostiko Seminarioa-Abadetxea, Donostia.
SES: Sancho el Sabio, Gasteiz.
UDAL: Udal Liburutegia (Aldizkariaren herriko Liburutegia).
XDZ: Xenpelar Dokumentazio Zentroa, Donostia.
ZF: Zarautzeko Frantziskotarrak, Zarautz.

18. *Liburutegi gehiagotako zehaztasunak izartxoaz adierazi ditugun egileen liburuetan aurki daitezke. Begiratu liburuen erreferentziak lan honetako bibliografia atalean.

3. ALDIZKARIEN ERROLDA

7 BAIETZ

1. 7 Baietz.
2. Unibertsitarion aldizkaria.
3. Leioa.
Dendarikale, 9-1.a (posta-kodea: 48005).
Tel.: 944162368; faxa: 944162730
4. Bihilabetekaria.
6. 1995ean sortua. ISSN 1136-047x
7. Argitaratzen da.
8. Nazionala.
9. 1.200 ale.
10. 200 pta. Publizitatea eta laguntza.
11. 340x240
12. 32 orrialde.
13. Euskalkiz Euskadi Euskara Taldea.
14. Gertu inprimategia.
15. Eragilea: Nerea Cabero.
16. Gai berezia: kultura.
17. Hezkuntza, unibertsitate eta ikasle-
ei buruzko albiste eta iritziak zabalt-
zea. Abertzalea.
19. Batua
21. EGO, EHU eta LAB
23. Posta bidezko banaketa. Une bere-
zietan 2.000 aleko tirada egiten
dute.

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ

1. Administrazioa Euskaraz.
3. Vitoria/Gasteiz.
Wellington dukea, 2 (posta-kodea: 01010).
Tel.: 945197600; faxa: 945197603
e-posta: webivap@ivap.es
4. Bihilabetekaria.
6. 1994an sortua.
7. Argitaratzen da.
8. Nazionala.
9. 10.000 ale.
10. Doan.
11. 275x210
12. 28 orrialde.
13. Herri Arduralaritzako Euskal Erakun-
dea (IVAP).
14. Itxaropena inprimategia.
15. Eragilea: Enrike Gorrotxategi.
16. Kultura orokorra.

17. Administrazioen artean euskara ho-
betzea.
19. Batua.
21. HAEE, HABE eta BBL.
23. Harpidetza bidezko banaketa.

AEKIDE

1. Aekide.
3. Bilbo.
Perro, 1 (posta-kodea: 48005).
Tel.: 944155257; faxa: 944166555
4. Bihilabetekaria.
6. 1990ean sortua. BI-254/96
7. Argitaratzen da.
8. Nazionala.
9. 2.000 ale.
10. Doan.
11. 297x210
12. 8 orriade.
13. AEK.
14. Gestingraf.
15. Eragilea: AEK.
16. Berripapera.
17. Elkarteko jardunbidearen berri za-
baltzea.
19. Batua.
21. EGO eta BBL.
23. Posta bidezko banaketa.

AIAUPENANIK

1. Aiaupenarik.
3. Lakuntza.
Tel.: 948576232
4. Urtean hirutan.
6. 1992an sortua.
7. 1997an desagertua.
8. Udalerria.
9. 400 ale.
10. Doan. Publizitatea eta laguntza.
12. 16 orrialde.
13. Euskara Batzordea.
15. Eragilea: Ana Esther Gil.
16. Hurbileko aldizkaria.
17. Albisteak zabalduz euskararen erabi-
lerari eragitea.
19. Batua.
21. UDAL eta BBL.
23. Gutunontziratze bidezko banaketa.

AIBA

1. Aiba.
2. Aranzadi Ikastolako Boletin Antzekoa.
3. Bergara.
Aranzadi Ikastola, San Martin plaza, 4 (posta-kodea: 20570).
Tel.: 943769071
4. Urtean hirutan.
6. 1996an sortua.
7. Argitaratzen da.
8. Kideak.
9. 800 ale.
10. Doan.
11. 297x210
12. 4 orrialde.
13. Aranzadi Ikastola.
14. Fotokopiatua.
15. Eragilea: Zuzendaritza.
16. Berripapera.
17. Elkarteko jardunbidearen berri zabaltzea.
19. Batua eta Bergarakoa.
21. EGO.
23. Eskuz eskuko banaketa. Laburpenak ditu gaztelaniaz.

AIURRI

1. Aiurri.
2. Beterrri-Ariztondoko Aldizkaria.
3. Andoain.
Huizi doktorea, 15 (posta-kodea: 20140).
Tel.: 943300732; faxa: 943300731
4. Hamabostekaria. ISSN 1354-0614
5. Ostiraletan.
6. 1993an sortua. ISSN 1134.0614
7. Argitaratzen da.
8. Eskualdea: Aduna, Andoain, Astearsu, Billabona, Larraul eta Zizurkil.
9. 3.500 ale.
10. Doan. Publizitatea eta laguntza.
11. 297x210
12. 24-36 orrialde.
13. Manuel Larramendi Kultur Bazkuna.
14. Gertu inprimategia.
15. Eragilea: Ainhoa Oiartzabal.
16. Hurbileko aldizkaria.
17. Albisteak zabalduz euskararen erabilerari eragitea.
19. Batua.

21. EGO, KM eta BBL.
23. Harpidetza bidezko banaketa. Hasieran, hilabetekaria.

AIZU!

1. Aizu!
2. Euskara ikasteko.
3. Bilbo.
Perro, 1-3.a (posta-kodea: 48005).
Tel.: 944152424; faxa: 944166555
e-posta: joxerg@arrakis.es
4. Hilabetekaria.
6. 1981eko abenduan sortua. ISSN 1132-1709
7. Argitaratzen da.
8. Nazionala.
9. 15.000 ale.
10. 300 pta/13 libera aleko.
Publizitatea eta laguntza.
11. 297x210
12. 44 orrialde.
13. AEK.
14. Antza, SAL.
15. Eragilea: Ana Unanue.
16. Kultura orokorra.
17. Oinarritzkoa den irakurketa ahalbidetzea.
19. Batua.
21. EGO, BBL eta KM.
23. Eskuz eskuko eta posta bidezko banaketa. Hasieran, hilabetekaria; gero, hamabostekaria. AEK-ko ikasleei matrikularekin batera saldua.

AKATZ

1. Akatz.
2. Bermeoko Aldizkaria.
3. Bermeo.
Atalde kalea, 17 (posta-kodea: 48730).
Tel.: 946880875 (astelehen, asteartean eta barikuetan: 10-12:30 / 17-19)
4. Hamabostekaria.
6. 1990ean sortua. ISSN-1132/1652
7. Argitaratzen da.
8. Udalerria.
9. 2.300 ale.
10. 2.500 pta/150 libera urtero. Publizitatea eta laguntza.
11. 297x210

12. 24 orrialde.
13. Ikuspegi Kultur Taldea.
14. Gertu inprimategia.
15. Eragileak: Julen Ensuntza San Millan eta Iratxe Astui Zarraga.
16. Hurbileko aldizkaria.
17. Albisteak zabalduz euskararen erabilerari eragitea.
19. Bermeoko euskara.
21. EGO, UDAL, BBL, HABE, LAB eta JDN.
23. Harpidetza bidezko banaketa.

ALDREBESA

1. Aldrebesea.
3. Bilbo.
6. 1993an sortua.
7. 1996an desagertua.
8. Kideak.
11. 297x105
12. 12 orrialde.
13. Bilbo Zaharra Euskaltegia.
16. Kultura orokorra.
17. Kultura herritartzea.
19. Batua.
21. BBL eta JDN.
23. Eskuz eskuko banaketa. Diseinu berezia: orri batzuk bi tolesdurekin.

ANAITASUNA

1. Anaitasuna.
2. *El maestro de los Terciarios*.
3. Tolosa/Zarautz/Bilbo.
4. Hilabetekaria.
6. 1945ean sortua.
7. 1975ean desagertua.
8. Nazionala.
11. 310x220
12. 4 orrialde.
13. Frantziskotarrak.
16. Gai berezia: erlijioa.
17. Elizkoia.
19. Euskalkiak.
21. BBL, HABE, LAB, ARG eta JDN.
23. Harpidetza bidezko banaketa. 1945etik 1949ra *El Maestro de los Terciarios* zuen izena, eta horren jarraipena da. 1950eko 69. zenbakia- ren lehen orrialdearen laurden bat gaztelaniaz idatzia agertzen da. 1952an argitaratutako 101. zenba-

kitik aurrera, euskaraz bakarrik. 1964az geroztik (240. zb.), *Anaitasuna: Boletín Oficial de la T.O.F. de Cantabria* azpizburuarekin agertzen da.

ANAITASUNA

1. Anaitasuna.
2. *Suplemento a la hoja "Anaitasuna" de Guipúzcoa*. PP.Franciscanos.
3. Bermeon eta Bilbon argitaratua.
4. Hilabetekaria eta hamabostekaria. 1981etik aurrera, irregularra.
6. 1953an sortua.
7. 1983an desagertua.
8. Nazionala.
9. 4.000 ale.
10. 300 pta urteko. Publizitatea.
11. 330x235
12. 16 orrialde.
13. Hirugarren Ordenako Biltzarre Nagusia (Madril).
14. Amao inprimategia.
15. Eragilea: azkena, Joxerra Etxebarria.
16. Informazio orokorra.
17. Albisteak eta iritziak euskaraz zabaltzea.
19. Batua.
21. KM, LAB, BBL eta HABE.
23. Harpidetza bidezko banaketa. 1965ean (120. zenb.) azpizburua galtzen du eta *Anaitasuna* bezala gertatzen da. 1969an, etenaldia. 1976an birsortzen da. Aurretik neurri ezberdinak izan ditu hiru alditan gutxienez.

ANTZERTI

1. Antzerti.
2. Antzerti zabalkunderako aldizkaria.
3. Vitoria/Gasteiz. Wellington dukea, 2 (posta-kodea: 01010).
4. Urtean zortzi.
6. 1932an sortua. SS-23. /1985
7. 1985ean desagertua.
8. Nazionala.
11. 200x145
12. 80 orrialde inguru.
13. Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila.

14. "Gráficas Tamayo".
15. Eragilea: Eusko Jaurilaritzako Kultura Saila.
16. Gai berezia: antzerkia.
17. Antzerkigintzari eragitea.
19. Batua.
21. KM, ARG, HABE, LAB, JDN eta BBL.
23. *Antzerti Berezi* aldizkari elebidunaren osagarria eta hilabetekaria. 1937tik 1982ra, etenaldia.

ARABALDEA

1. Arabaldea.
3. Gasteiz.
Gasteizko PAT Euskara Zerbitzua.
Gasteiz hiribidea, 93 (posta-kodea: 01009).
Tel.: 945 229300
4. Urtean hirutan.
6. 1996an sortua.
7. Argitaratzen da.
8. Partaideak.
9. 2.000 ale
10. Doan. Laguntzak.
11. 400x310
12. 20 orrialde.
13. Ikastetxeak
14. Gertu inprimategia.
15. Eragilea: Gasteizko PATEko Inma Pardo.
16. Eskoletako prentsa.
17. Ikasleen sormenari eragitea.
19. Batua.
21. EGO eta PAT.
23. Eskuz eskuko banaketa. Aldizkaria egiten parte hartzen dutenei 1.400 ale eta gainerakoak erakundeetara. Arabako 24 ikastetxetako ikasleen partaidetzarekin egina.

ARETXAGAZETA

1. Aretxagazeta.
3. Aretxabaleta.
Durana, 11 (posta-kodea: 20550).
Tel.: 943798621; faxa: 943795411
e-posta: aretxagazeta@saretxo.es
4. Hamabostekaria.
5. Osteguna.
6. 1992an sortua. ISSN 1134-2609
7. Argitaratzen da.

8. Udalerria.
9. 2.500 ale.
10. Doan. Publizitatea eta laguntza.
11. 297x210
12. 24 orrialde.
13. Aretxabaletako Komunikabideak-Lorramendi Kultur Elkarte.
14. Eguzkigraf Koop.
15. Eragilea: Iratxe Bengoa.
16. Hurbileko aldizkaria.
17. Albisteak zabalduz euskararen erabilerari eragitea.
19. Batua eta herriko euskara.
21. EGO, KM eta BBL
23. Gutunontziratze bidezko banaketa.

ARGIA

1. Argia.
2. Euskal Herriko Astekaria.
3. Lasarte-Oria.
Zirkuitu ibilbidea, 15 (posta-kodea: 20160).
Tel.: 943371545; faxa: 943373403
e-posta: kazeta@argia.com
4. Astekaria.
5. Asteazkenetan.
6. 1980an berritua (ikus 23.). ISSN 0213-909x
7. Argitaratzen da.
8. Nazionala.
9. 10.000 ale.
10. 15.000 pta/717 libera urteko. Publizitatea eta laguntza.
11. 285x210
12. 56 orrialde.
13. Komunikazio Biziagoa, SAL.
14. Antza, SAL.
15. Eragilea: Pello Zubiria.
16. Informazio orokorra.
17. Albisteak eta iritziak euskaraz zabaltea.
19. Batua.
21. KM, BBL, LAB, HABE, JDN eta ARG.
23. Harpidetza eta kiosko bidez saldua. *Argia* hau *Zeruko Argiaren* jarraipena da. *Zeruko Argia* Iruñean egiten zen: lehen aldia, 1919tik 1936ra; bigarren aldia, 1954tik 1960ra; hirugarren aldia, 1963tik 1980ra. Beste bi *Argia* ere izan ziren: bata, Donostian, 1921etik 1936ra; bestea, Caracasen, 1946tik 1948ra arte.

ARKUPE

1. Arkupe.
2. Donostiako Euskararen Udal Patronatuaren aldizkaria.
3. Donostia.
Konstituzio plaza, 6 (posta-kodea: 20223).
Tel.: 943424717
4. Urtean hirutan.
6. 1995ean sortua. SS-109/1996
7. Argitaratzen da.
8. Udalerrria.
9. 9.000 ale.
10. Doan.
11. 297x210
12. 4 orrialde.
13. Euskararen Udal Patronatua.
14. Hainbat inprimategi.
15. Eragilea: Inazio Arregi.
16. Kultura orokorra.
17. Albisteak zabalduz euskararen erabilerari eragitea.
19. Batua.
21. HABA.
23. Posta bidez eta leku publikoetan banatua. Hasieran, hilabetekaria. Gaztelaniaz 3.000 ale zabaltzen dira.

ARNAS

1. Arnas.
2. Bilaroko sakramentinoen komentuko aldizkaria.
3. Bilaro.
4. Urtean bitan.
6. 1959an sortua.
7. 1967an desagertua.
8. Nazionala.
11. 260x210
12. 70 orrialde.
13. Bilaroko fraideak.
14. Idazmakinez idatzia eta multikopistaz argitaratua.
15. Eragilea: Paulo Iztueta.
16. Kultura orokorra.
17. Elizkoia.
19. Batua.
21. BBL, JDN eta ARG.
23. Eskuz eskuko banaketa.

ARRANA

1. Arrana.
2. Arratiako Aldizkaria.
3. Igorre.
Arratia Batxilergo Institutua. Olabarrri, z/g (posta-kodea: 48140).
Tel.: 946736237
4. Urtean bitan
6. 1991n sortua.
7. Argitaratzen da.
8. Partaideak.
9. 500 ale.
10. 250 pta aleko. Publizitatea.
11. 297x210
12. 80 orrialde.
13. Arratia Batxilergo Institutua.
14. Fotokopiatua.
15. Eragilea: ikasleak eta Iñigo eta Juantxo Rekalde irakasleak.
16. Eskoletako prentsa.
17. Ikasleen sormenari eragitea.
19. Batua eta bizkaiera.
21. EGO eta BBL.
23. Eskuz eskuko banaketa.

ARRANONDO

1. Arranondo.
3. Ondarroa.
Iturribarri, 5-behea (posta-kodea: 48700).
Tel.: 946830287; 946134105; faxa: 946830287
4. Hilabetekaria.
6. 1990ean sortua. ISSN 1132-0796
7. Argitaratzen da.
8. Udalerrria.
9. 3.500 ale.
10. Saldu. Publizitatea eta laguntza.
11. 280x200
12. 20 orrialde.
13. Arranondo Kultur Elkartea.
14. Flash Composition, SL.
15. Eragilea: Agustin Zubikarai
16. Hurbileko aldizkaria.
17. Albisteak zabalduz euskararen erabilerari eragitea.
19. Herriko euskara.
21. EGO, LAB, BBL eta JDN.
23. Posta bidezko banaketa.

ARRASATE PRESS

1. Arrasate Press.
3. Arrasate.
Otalora Lizentziatua, 31 (posta-kodea: 20500).
Tel.: 943790565; faxa: 943770940
e-posta: arrasatepress@readyssoft.es
4. Astekaria.
5. Ostiraletan.
6. 1988an sortua. ISSN 0214-4654
7. Argitaratzen da.
8. Udalerria.
9. 6.400 ale.
10. Doan. Publizitatea eta laguntza.
11. 297x210
12. 36 orrialde.
13. Arrasate Komunikabideak-AED.
14. Gertu inprimategia.
15. Eragilea: Agurtzane Gaintzarain.
16. Hurbileko aldizkaria.
17. Albisteak zabalduz euskararen erabilerari eragitea.
19. Batua.
21. EGO, KM, BBL, LAB, HABE eta JDN.
23. Harpidetza bidezko banaketa. Bazkideek, 1999an, urteko 6.600 pezeta-ko kuota ekarpena egin zuten.

ARTZAI DEIA

1. Artzai Deia.
3. Saldias.
Parrokia-etxea (posta-kodea: 31747).
Tel.: 948615120 (apaiza: On Tomas Otxandorena)
4. Urtean hirutan.
5. Gabonetan, Garizuman eta Sanjoanetan.
6. 1955ean sortua.
7. Argitaratzen da.
8. Eskualdea.
9. 80 ale.
10. Doan.
11. 297x210
12. 20 orrialde.
13. Saldiasko parrokia.
14. Fotokopiatua.
15. Eragilea: Tomas Otxandorena.
16. Kultura orokorra.
17. Elizkoia.
19. Euskalkia.
21. JMS, JDN eta LEK.

23. Bildumak Lekarotzen, 1955etik 1968ra, eta Saldiasen, 1968tik gaur arte, gordetzen dira.
Lekarotzeko Kaputxinoek sortua; Eragilea: Oieregiko Aita Buenabentura. Sorreran, hamabostekaria; gero, hilabetekaria; gaur egun, urtean hirutan. Dokumentu zahar originala gaztelaniaz denean, bere horretan ekartzen du.

ASMOZ ETA JAKITEZ

1. Asmoz eta Jakitez.
3. Donostia.
Eusko Ikaskuntza.
4. Hilabetekaria.
6. 1992an sortua. ISSN 1132-7952
7. 1995ean desagertua.
8. Nazionala.
10. Doan.
11. 280x215
12. 4 orrialde.
13. Eusko Ikaskuntza.
14. Gertu inprimategia.
15. Eragilea: Joxemari Velez de Mendizabal.
16. Berripapera.
17. Elkarteko jardunbidearen berri zabaltea.
19. Batua.
21. LAB, BBL, JDN eta HABE.
23. Posta bidezko banaketa. Gaztelaniaz errepikatzen da.

ATEA

1. Atea.
2. AED, Txatxilipurdi, Ekin eta ARKoren berripapera.
3. Arrasate.
Pablo Uranga, 4 (posta-kodea: 20500)
Tel.: 943771228
4. Urtean lautan.
6. 1996an sortua.
7. Argitaratzen da.
8. Udalerria.
9. 1.000 ale.
10. Doan.
11. 297x210
12. 4 orrialde.

13. AED.
14. Gertu inprimategia.
15. Eragilea: Jasone Mendizabal.
16. Berripapera.
17. Elkarreteako jardunbidearen berri zabaltzea.
19. Batua eta Arrasateko euskara.
21. EGO.
23. Posta bidezko banaketa.

ATZOKO ANDOAIN ETA ANDOAINDARRAK

1. Atzoko Andoain Eta Andoaindarrak.
3. Andoain.
Huizi doktorea, 15 (posta-kodea: 20140).
Tel.: 943300732; faxa: 943300731
4. Hilabetekaria.
6. 1998an sortua. SS-1594/1998
7. Argitaratzen da.
8. Udalerria.
9. 3.000 ale.
10. Doan.
11. 297x210
12. 4 orrialde.
13. Manuel Larramendi Kultur Elkartea.
14. Sortu Grafikak.
15. Eragilea: Patxi Bazterrika.
16. Kultura orokorra.
17. Herriaren iragan gertukoa gogora ekarri eta zabaltzea.
19. Batua.
21. EGO.
23. *Aiurri* aldizkariarekin batera banatzen da.

AUZOKA

1. Auzoka.
3. Donostia.
Donostialdeko PAT (posta-kodea: 20080).
Tel.: 943320087
4. Urtean hirutan.
6. 1998an sortua.
7. Argitaratzen da.
8. Kideak.
9. 7.800 ale.
10. Doan.
11. 375x310
12. 44 orrialde.

13. Donostiako Euskararen Udal Patronatua.
14. Hainbat inprimategi.
15. Eragilea-Koordinatzailea: Donostiako PATEko euskara esparruko aholkularia.
16. Eskoletako prentsa.
17. DBHko ikasleen sormenari eragitea.
19. Batua.
21. HABE, JDN eta BBL.
23. Eskuz eskuko banaketa, Donostiako ikastetxeetan.

AXULAR

1. Axular.
2. Axular Kultur Elkartearen aldizkaria.
3. Burlata.
Ermita kalea, 20 (posta-kodea: 31600).
Tel.: 948233609
e-posta: ziripot@cin.es
4. Urtean lautan.
6. 1997an sortua. NA: 2504/1998
7. Argitaratzen da.
8. Udalerria.
9. 2.500 ale.
10. Doan. Publizitatea eta laguntza.
11. 297x210
12. 32 orrialde.
13. Axular Kultur Elkartea.
14. Idazluma inprimategia.
15. Eragilea: Patxi Telletxea.
16. Hurbileko aldizkaria.
17. Albisteak zabalduz euskararen erabilerari eragitea.
19. Batua.
21. EGO.
23. Erakunde ofizialei postaz (200), harpideei gutunontzietan (800) eta besteak ikastetxeetan eta Iruñeko dendetan banatzen dira.

AZKEN HITZA

1. Azken Hitza.
3. Irun.
Txingudi BHI.
Jaizubia, z/g. (posta-kodea: 20300).
Tel.: 943616054
4. Urtean hirutan.
6. 1998an sortua.

7. Argitaratzen da.
8. Partaideak.
9. 100 ale.
10. Saldu.
11. 297x210
12. 30 orrialde.
13. Txingudi BHI.
14. Fotokopiatua.
15. Eragilea: Amaia.
16. Eskoletako prentsa.
17. Ikasleen sormenari eragitea.
19. Batua.
21. EGO.
23. Eskuz eskuko banaketa.

AZPEITIAN ZER

1. Azpeitian Zer.
2. Azpeitiko aldizkaria.
3. Azpeitia.
Kultur Batzordea.
Enparantza Nagusia, 5 (posta-kodea: 20730).
Tel.: 943157200; faxa: 943157201
4. Hilabetekaria.
5. Lehenengo egunetan.
6. 1989an sortua. SS-1148/1191.
7. Argitaratzen da.
8. Udalerria.
9. 3.500 ale.
10. Doan. Publizitatea eta laguntza.
11. 297x210
12. 8/12 orrialde.
13. Azpeitiko Udaleko Kultur Batzordea.
14. Martinez inprimategia.
15. Eragilea: Pilar Arrieta.
16. Hurbileko aldizkaria.
17. Udaleko informazioa euskaraz zabaltzea.
19. Batua.
21. UDAL, KM, BBL eta LAB.
23. Gutunontziratze bidezko banaketa.
Hasieran, kultura hamabostekaria.
2. aldian, 1996tik aurrera, herri aldizkaria.

BAGATOZ

1. Bagatoz.
2. Bagatoz aldizkaria.
3. Irun-Hondarribia.
Paseo de Arbes (posta-kodea: 20300).
Tel.: 943624050

4. Urtean bitan.
6. 1989an sortua.
7. Argitaratzen da.
8. Kideak.
9. 2.000 ale.
10. Doan.
11. 297x210
12. 32 orrialde.
13. PAT-COP.
14. Jomisa.
15. Eragilea: Nerea Iriondo.
16. Eskoletako prentsa.
17. DBHko eta LHko ikasleen sormenari eragitea.
19. Batua.
21. EGO.
23. Eskuz eskuko banaketa.

BALEIKE

1. Baleike.
2. Zumaiako herri aldizkaria.
3. Zumaia.
Foronda Kultur Etxea (posta-kodea: 20750).
Tel.: 943865025; faxa: 943861742
e-posta: baleike@yahoo.com
4. Hilabetekaria.
5. Lehen ostiraletan.
6. 1994an sortua. ISSN 1136-8594
7. Argitaratzen da.
8. Udalerria.
9. 1.000 ale.
10. 100 pta. Publizitatea eta laguntza.
11. 297x210
12. 32 orrialde.
13. Baleike Kultura Elkarte.
14. Gertu inprimategia.
15. Eragilea: Xabier Azkue.
16. Hurbileko aldizkaria.
17. Albisteak zabalduz euskararen erabilerari eragitea.
19. Batua.
21. EGO, KM, BBL eta LAB.
23. Salmentagune eta harpidetza bidezko banaketa. 1987tik 1990era
Orrua izenekoa argitaratu zen.

BARNEGATS

1. Barnegats.

3. Donostia.
Zurriola hiribidea, 14-1.a, ezkerria
(posta-kodea: 20002).
Tel.: 943276999; faxa: 943277288
4. Urtean bitan.
6. 1997an sortua.
7. Argitaratzen da.
8. Kideak.
9. 500 ale.
10. Doan.
11. 297x210
12. 12 orrialde.
13. EIE.
15. Eragilea: Maite Gonzalez Esnal.
16. Berripapera.
17. Elkarteko jardunbidearen berri zabaltzea.
19. Batua.
21. EGO, JDN eta HABE.
23. Posta bidezko banaketa.

BARREN

1. Barren.
2. Elgoibarko astekaria.
3. Elgoibar.
Nafarroako plaza, 2 (posta-kodea: 20870).
Tel.: 943744112; faxa: 943743704
e-posta: barren@topagunea.com
4. Astekaria.
5. Ostiraletan.
6. 1992an sortua. ISSN 1133-021x
7. Argitaratzen da.
8. Udalerria.
9. 4.000 ale.
10. Doan. Publizitatea eta laguntza.
11. 297x210
12. 32 orrialde.
13. Elgoibarko Izarra euskara elkarte.
14. Gertu inprimategia.
15. Eragilea: Ainhoa Lodoso.
16. Hurbileko aldizkaria.
17. Albisteak zabalduz euskararen erabilerari eragitea.
19. Batua.
21. EGO, KM, JDN eta BBL.
23. Harpidetza bidezko banaketa.

BAT

1. Bat.
2. Soziolinguistika aldizkaria.

3. Donostia.
Baleazaleen kalea 21, I-A (posta-kodea: 20011).
Tel.: 943466676; faxa: 943466894
4. Urtean lautan.
6. 1989an sortua. ISSN 1130/8435
7. Argitaratzen da.
8. Nazionala.
9. 1.200 ale.
10. 1.000 pta aleko. Publizitatea eta laguntza.
11. 265x195
12. 90 orrialde.
13. SEI Elkarte.
14. "Gráficas Lizarra".
Eragilea: Jose Luis Alvarez Enparantza "Txillardegí".
16. Gai berezia: soziolinguistika.
17. Euskalgintzako kideak janztea.
19. Batua.
21. EGO, KM, BBL, LAB, JDN eta HABE.
23. Harpidetza eta kiosko bidez saldua.
Euskal Kulturaren Batzarreak argitaratzen zuen 1999 arte.

BAZKA

1. Bazka.
3. Zarautz.
Lanpardo, 6 (posta-kodea: 20700);
posta-kutxa: 317.
Tel.: 943832655
4. Urtean lautan.
6. 1999an sortua.
7. Argitaratzen da.
8. Nazionala.
9. 1.000 ale.
10. Doan.
11. 297x210
12. 32 orrialde.
13. Estrata Liburuak.
14. Susa argitaletxea.
15. Eragilea: Iñigo Aranbarri.
16. Kultura orokorra.
17. Kultura kezkek adieraztea.
19. Batua.
21. EGO
23. Eskuz eskuko banaketa. Argitalpen irregularra. Susa argitaletxearen web orrian dago.

BEHINOLA

1. Behinola.
2. Haur eta gazte literatura aldizkaria.
3. Donostia.
Galtzagorri Elkartea (posta-kodea: 20080); posta-kutxa: 885.
Tel.: 945287283
4. Urtean bitan.
6. 1999an sortua.
7. Argitaratzen da.
8. Nazionala.
9. 1.000 ale.
10. Saldu.
11. 265x195
12. 100 orrialde.
13. Galtzagorri Elkartea.
14. Lamia inprimategia.
15. Eragilea: Manu Lopez.
16. Literatura.
17. Haur eta gazte literaturaren kritika egitea eta eragitea.
19. Batua
21. SES.
23. Harpidetza bidez saldua. Zenbaki biko aleak izango dira.

BEKOPLAZA

1. Bekoplaza.
2. Eskola-prentsa.
3. Oiarzun,
Manuel Lekuona etorbidea, z/g
(posta-kodea: 20180).
Tel.: 943491017
4. Urtean bitan.
6. 1995ean sortua.
7. Argitaratzen da.
8. Kideak.
9. 500 ale.
10. Doan.
11. 420x297
12. 24 orrialde.
13. Elizalde Ikastetxea.
14. Antza, SAL.
15. Eragileak: Karmele Presentacion eta Agurtzane Jaso.
16. Eskoletako prentsa.
17. DBHko euskarazko ikasleen sormenari eragitea.
19. Batua.
21. EGO.
23. Eskuz eskuko banaketa.

BERBA

1. Berba.
3. Donostia.
Aldapeta, 20 (posta-kodea: 20009).
Tel.: 943473377; faxa: 943457944
e-posta: uzei@uzei.com
4. Urtean lautan.
6. 1982an sortua.
7. Argitaratzen da.
8. Kideak.
9. 1.000 ale.
10. Doan.
11. 297x210
12. 4 orrialde.
13. UZEI.
14. Gertu inprimategia.
15. Eragilea: Jabier Agirre.
16. Berripapera.
17. Elkarteko jardunbidearen berri zabaltzea.
21. EGO, BBL, LAB, JDN eta HABE.
23. Posta bidezko banaketa.

BERBAIXU

1. Berbaixu.
3. Bilbo (Santutxu).
Karmelo Institutua.
Solokoetxe, z/g (posta-kodea: 48006).
Tel.: 944159974
4. Urtean bitan.
6. 1998an sortua.
7. Argitaratzen da.
8. Kideak.
9. 180 ale.
10. 100 pta aleko.
11. 297x210
12. 14 orrialde.
13. Solokoetxe Institutua.
14. Fotokopiatua.
15. Eragileak: Arantxa Zabala eta Belen Aurrekoetxea.
16. Eskoletako prentsa.
17. DBHko 4. mailako ikasleen sormenari eragitea.
19. Batua.
21. EGO.
23. Eskuz eskuko banaketa.

BERBARO

1. Berbaro.
2. Ugaoko Udal Euskaltegia.
3. Arrigorriaga.
Argalaren enparantza, 2-2.a (posta-kodea: 48480).
Tel.: 946711906
4. Urtean hirutan.
6. 1994an sortua. ISSN 1134-041x
7. Argitaratzen da.
8. Udalerria.
9. 4.000 ale.
10. Doan.
11. 297x210
12. 12 orrialde.
13. Ugaoko Udal Euskaltegia.
14. "Gráficas Arakaldo".
15. Eragilea: Udal Euskaltegia.
16. Hurbileko aldizkaria.
17. Albisteak zabalduz euskararen erabilerari eragitea.
19. Batua.
21. UDAL, BBL eta SES.
23. Gutunontziratze bidezko banaketa.

BERRIETAN BLAI

1. Berrietan Blai.
3. Bermeo.
Udal Liburutegia.
Lamera, z/g (posta-kodea: 48370).
Tel.: 946179151
4. Hilabetekaria.
6. 1992an sortua.
7. Argitaratzen da.
8. Udalerria.
9. 6.000 ale.
11. 430x315
12. 8 orrialde.
13. Bermeoko Udala.
14. Gertu inprimategia
15. Eragilea: Hasier Rekondo.
16. Hurbileko aldizkaria.
17. Udaleko informazioa zabaltzea.
19. Batua.
21. BBL, LAB eta JDN.
23. Gutunontziratze eta salmentagune bidez banatua. Laburpenak gaztelaniaz.

BERRIGARA

1. Berrigara.
2. Bergarako astekaria.
3. Bergara.
Irizar jauregia.
Barrenkalea, 33 (posta-kodea: 20570).
Tel.: 943760397; faxa: 943762977
e-posta: berrigara@topagunea.com
4. Astekaria.
5. Ostiraletan.
6. 1990ean sortua. ISSN 1130-6599
7. Argitaratzen da.
8. Udalerria.
9. 5.100 ale.
10. Doan. Publizitatea eta laguntza.
11. 297x210
12. 36 orrialde.
13. Jardun Elkarte.
14. Gertu inprimategia.
15. Eragilea: Eneko Azkarate.
16. Hurbileko aldizkaria.
17. Albisteak zabalduz euskararen erabilerari eragitea.
19. Batua.
21. EGO, KM, BBL, JDN eta LAB.
23. Harpidetza bidezko banaketa.

BERRIKARIA

1. Berrikaria.
2. Euskara irakasten eta sustatzen ari garenen berrikaria.
3. Donostia.
Gasteiz kalea, 3 (posta-kodea: 20009).
Tel.: 943412600; faxa: 943412601
4. Urtean hirutan
6. 1995ean sortua.
7. Argitaratzen da.
8. Nazionala.
9. 600 ale.
10. Doan.
11. 297x210
12. 4 orrialde.
13. HABEko Prestakuntza Saila.
15. Eragilea: HABE.
16. Berripapera.
17. Elkarteko jardunbidearen berri zabaltzea.
19. Batua.
21. HABE.
23. Posta bidez banatua.

BERRIKETAN

1. Berriketan.
2. Zuhatza Berriketan.
3. Deba.
Ifar kalea, 12-behea (posta-kodea: 20820).
Tel.: 943192998
4. Hilabetekaria.
5. Hileko lehen ostiralean.
6. 1998an sortua.
7. Argitaratzen da.
8. Udalerria.
9. 500 ale.
10. Doan.
11. 297x210
12. 8 orrialde.
13. Zuhatza Euskara Elkarte.
14. Euskalinpri.
15. Eragilea: Amaia Zinkunegi.
16. Hurbileko aldizkaria.
17. Albisteak zabalduz euskararen erabilerari eragitea.
19. Batua.
21. EGO.
23. Harpidetza bidez banatua.

BERRITXUA

1. Berritxua.
3. Audio.
Canciller Ayala Institutua, Zumalakarregi etorbidea, 34 (posta-kodea: 01400).
Tel.: 946720086; faxa: 946722619
4. Urtean hirutan.
6. 1994an sortua.
7. Argitaratzen da.
8. Kideak.
9. 100 ale.
10. 50 pta aleko.
11. 297x210
12. 40 orrialde.
13. Audioko Canciller Ayala Institutua.
14. Fotokopiatua.
15. Eragileak: Txaro eta Kontxita irakasleak.
16. Eskoletako prentsa.
17. DBHko 3. eta 4. mailako ikasleen sormenari eragitea.
19. Batua.
21. EGO.
23. Eskuz eskuko banaketa. Gaztelaniaz

sortua; gero, elebiduna; azken urtean, berriz, euskara hutsean. Euskara hutsez jarraitzeko asmoa omen dute.

BERTON

1. Berton.
2. Mahatserriko aldizkaria.
3. Bilbo.
Iturriaga, 55-1.a, ezkerra (posta-kodea: 48004).
Tel.: 944735448; 944400686
e-posta: berton@mail.com
4. Hilabetekaria.
6. 1998an sortua. BI-85/1998
7. Argitaratzen da.
8. Udalerria (antzinako Begoña): Begoña, Bolueta, Otxarkoaga, Santutxu eta Txurdinaga auzoak.
9. 1.000 ale.
10. 125 pta aleko/1.000 pta urteko.
11. 297x210
12. 32 orrialde.
13. Batan Batu Kultur Elkarte.
14. Antza, SAL.
15. Eragilea: Koldo Urrutikoetxea
16. Hurbileko aldizkaria.
17. Albisteak zabalduz euskararen erabilerari eragitea.
19. Batua eta bizkaiera.
21. EGO.
23. Harpidetza bidezko banaketa.

BERTSOLARI

1. Bertsolari.
2. Bertsolari aldizkaria.
3. Donostia.
Madrid ibilbidea, 6-A-behea (posta-kodea: 20011).
Tel.: 943471142
4. Urtean lautan.
6. 1991n sortua. SS-482/1991
7. Argitaratzen da.
8. Nazionala.
9. 3.000. ale.
10. 775 pta aleko. Publizitate gutxi eta laguntza.
11. 240x170
12. 100-112 orrialde.
13. Bertsozaleak kultur elkarte.
14. "Gráficas Izarra".

15. Eragilea: Joxean Agirre.
16. Gai bereziak. Bertsoaritzza.
17. Euskaltzaleak.
19. Batua.
21. EGO, KM, LAB, BBL, JDN eta HABE.
23. Posta bidezko banaketa. Zenbait tirada 4.000 alekoak izan dira.

BERTSOZALE

1. Bertsozale.
2. Euskal Herriko Bertsozaleen Berri-papera.
3. Donostia.
(posta-kodea: 20008).
Tel.: 943217798; faxa: 943212427
e-posta: bertsozale@euskaltel.es
4. Hilabetekaria.
6. 1997an sortua. ISSN 1138-4530
7. Argitaratzen da.
8. Nazionala.
9. 1.500 ale.
10. Doan. Laguntza.
11. 297x210
12. 4 orrialde.
13. Euskal Herriko Bertsozale Elkarte.
14. Sostu.
15. Eragilea: EHBE (Koldo Tapia).
16. Gai berezia: bertsoaritzza.
17. Bertsozalea.
19. Batua.
21. EGO eta XDZ.
23. Posta bidezko banaketa.

BETERRIKO LIBURUA

1. Beterriko Liburua
2. Beterriko Liburua, literatura aldizkaria.
3. Andoain.
Huizi Doktoea, 15-1.a (posta-kodea: 20140)
Tel.: 943300732; 943300733
4. Hiruhilabetekaria.
5. Hileko azken ostiralean.
6. 1998an sortua.
7. Argitaratzen da.
8. Eskualdea: Aduna, Andoain, Astearsu, Billabona, Larraul eta Zizurkil.
9. 2.500 ale.
10. Doan.
11. 297x210

12. 12 orrialde.
13. Manuel Larramendi Kultur Bazkuna.
14. Zyma inprimategia.
15. Eragilea: Ainhoa Arozena eta Beterri-Arizonto Gerora Bidea hitzarmena.
16. Literatura.
17. Literaturazaleak.
19. Batua.
21. EGO, KM eta BBL.
23. *Aiurri* aldizkariarekin batera banatzen da. Baita herriko eskola eta liburutegietan ere.

BIDEZ

1. Bidez.
2. Pasiotar gaien aldizkaria.
3. Euba.
4. Urtean lau.
6. 1963an sortua.
7. 1968an desagertua.
12. 315x215
13. Pasiotar fraideak.
14. Multikopiatua.
16. Kultura orokorra.
17. Elizkoia.
19. Batua.
21. BBL eta ARG.

BIZARRA LEPOAN

1. Bizarra Lepoan.
2. Getxoko Aldizkaria.
3. Getxo.
Teiletxe, 5 (posta-kodea: 48990).
Tel.: 944911337; faxa: 944911337
4. Hilabetekaria.
6. 1995ean sortua.
7. 1999an desagertua.
8. Udalerria.
9. 3.000 ale.
10. Doan. Publizitatea eta laguntzak.
11. 297x210
12. 36 orrialde.
13. Bizarra Lepoan Euskara Elkarte.
14. Gestingraf (Bilbo).
15. Eragilea: Jokin Aspuru.
16. Hurbileko aldizkaria.
17. Albisteak zabalduz euskararen erabilerari eragitea.
19. Batua.
21. EGO, JDN eta BBL.

23. Harpidetza bidezko banaketa. 1999an *Uribekosta* izena hartu zuen.

BOLO BOLO

1. Bolo Bolo.
2. Ondarroa eta Kamiñazpiko aldizkaria.
3. Ondarroa.
Erribera, 9-2.a (Kofradia Zaharra)
(posta-kodea: 48700).
Tel.: 943771015 (Diara)
e-posta: bolobolo@sarenet.es
4. Urtean lautan.
6. 1998an sortua.
7. Argitaratzen da.
8. Udalerria.
9. 1.000 ale.
10. 300 pta/12 libera aleko. Publizitate gutxi.
11. 297x210
12. 48 orrialde.
13. Bolo Bolo taldea.
14. Gertu inprimategia.
15. Eragilea: Iñigo Zabala.
16. Hurbileko aldizkaria.
17. Albisteak zabalduz euskararen erabilerari eragitea.
19. Batua eta herrikoa.
21. EGO.
23. Harpidetza, kiosko, eta salmentagune bidez saldua.

BOST AXOLA

1. Bost Axola.
3. Basauri, Soloberri enparantza, 4.a (posta-kodea: 48970).
Tel.: 944400617; faxa: 944403927
e-posta: bostaxol@senda.ari.es
4. Urtean lautan.
6. 1993an sortua.
7. 1998an desagertua.
8. Udalerria.
9. 1.700 ale
10. Doan. Publizitatea eta laguntza.
11. 297x210
12. 36 orrialde.
13. Euskarabila.
14. Gertu inprimategia.
15. Eragilea: Iñigo Gago. Tel.: 944496277.

16. Hurbileko aldizkaria.
17. Albisteak zabalduz euskararen erabilerari eragitea.
19. Batua.
21. EGO, BBL eta LAB.
23. Harpidetza bidezko banaketa.

BOST PRESS

1. Bost Press.
2. Andoaingo eskolarteko aldizkaria.
3. Andoain.
Andoaingo Udala (posta-kodea: 20140).
Tel.: 943300830
4. Urtean lautan.
6. 1996an sortua. ISSN-1137-4197
7. Argitaratzen da.
8. Kideak.
9. 800 ale.
10. Doan. Laguntza
11. 310x200
12. 12 orrialde.
13. Udaleko Euskara Batzordea.
14. Sortu S. Coop.
15. Eragilea: Euskara Zerbitzua.
16. Eskoletako prentsa.
17. DBHko ikasleen sormenari eragitea.
19. Batua.
21. EGO eta JDN.
23. Eskuz eskuko banaketa.

BOST TTIKI

1. Bost Ttiki.
2. Andoaingo eskolarteko aldizkaria.
3. Andoain.
Andoaingo Udala (posta-kodea: 40140).
Tel.: 943300830
4. Urtean lautan.
6. 1996an sortua. ISSN 1137-4195
7. Argitaratzen da.
8. Kideak.
9. 750 ale.
10. Doan. Laguntza.
11. 235x225
12. 12 orrialde.
13. Udaleko Euskara Batzordea.
14. Sortu S. Coop.
15. Eragilea: Euskara Zerbitzua.
16. Eskoletako prentsa.

17. DBHko ikasleen sormenari eragitea.
19. Batua.
21. EGO eta BBL.
23. Eskuz eskuko banaketa.

BRANKA

1. Branka.
2. Pasaiaiko Herri Aldizkaria.
3. Pasaia.
Ekalantegi, 38 behea
(Posta-kodea: 20.110).
Tel.: 943341045
4. Hilabetekaria.
6. 1999an sortua.
7. Argitaratzen da.
8. Udalerrria.
9. 2.500 ale.
10. Doan.
11. 297x210
12. 28 orrialde.
13. Arnasa eta Abararaska euskara el-
karteak.
16. Hurbileko aldizkaria.
17. Albisteak zabalduz euskararen erabi-
lerari eragitea.
19. Batua.
21. EGO.
23. Harpidetza bidezko banaketa.

BRANKAS

8. Eskualdea: Amoroto, Aulestia, Gizarburuaga, Markina eta Mendexa.
10. Saldu.
11. 315x215 / 220x160
12. 6 orrialde.
14. Multikopiatua.
16. Hurbileko aldizkaria.
17. Erljio eragina izatea.
19. Bizkaiera.
21. LAB, EUS, BBL, ARG eta JDN.
23. Hasieran, 6 orri (alde batetik idatzita), eta gero tolestua eta inprimategian egina.

ZIPOTZ

1. Zipotz.
3. Lasarte-Oria.
6. 1988an sortua.
7. 1991n desagertua.
8. Udalerria.
11. 297x210
12. 8 orrialde.
13. Euskara Taldearen Aldizkaria.
16. Herriko albisteak.
17. Albisteak zabalduz euskararen erabilerari eragitea.
19. Batua.
21. BBL.

ZORROTZ-MORROTZ

1. Zorrotz-Morrotz.
2. Zorrotzako Aldizkaria.
3. Bilbo (Zorrotza)
Auzo Etxea.
Frai Juan, 28 (posta-kodea: 48013).
Tel.: 944990193
4. Urtean hirutan.

6. 1995ean sortua.
7. Argitaratzen da.
8. Udalerria.
9. 1.000 ale.
10. Doan. Iragarkiak.
11. 297x210
12. 16 orrialde.
13. Zorrotzako Euskal Txokoa.
14. Aringraf.
15. Eragilea: elkartea.
16. Hurbileko aldizkaria.
17. Albisteak zabalduz euskararen erabilerari eragitea.
19. Batua.
21. EGO.
23. Harpidetza eta zerbitzugune bidezko banaketa.

ZUBIZABAL

1. Zubizabal.
3. Zarautz.
Gipuzkoa etorbidea, 13, 5-F (postakodea: 20800).
Tel. eta faxa: 943833633
4. Urtean bi.
6. 1999an sortua.
7. Argitaratzen da.
8. Nazionala.
9. 300 ale.
10. Saldu.
11. 290x215
12. 76 orrialde.
13. Ikeritz-Olerti Etxea.
14. Krontis, SAL.
15. Eragilea: Leopoldo Zugaza.
16. Literatura.
17. Kulturazalea.
19. Batua.
21. UDAL eta LAB.
23. Kiosko bidez saldua.

ZUBIZAHAR

1. Zubizahar.
3. Ondarroa.
4. Urtean bi.
6. 1974an sortua.
7. 1977an desagertua.
8. Kideak.
11. 297x210.
12. 36 orrialde.
13. Herri Ikastola.

- | | |
|--|--|
| 16. Eskoletako prentsa. | Tel.: 943412600; faxa: 943412601 |
| 17. Elkarteko jardunbidearen berri zabaltea eta ikasleen sormenari eragitea. | 4. Urtean hirutan. |
| 19. Batua eta bertakoa. | 6. 1983an sortua. ISSN 0212-5714 |
| 21. BBL. | 7. 1996an desagertua. |
| | 8. Nazionala. |
| | 10. 1.695 pta urteko. |
| | 15. Eragilea: Joanba Bergara. |
| | 16. Gai berezia: hezkuntza. |
| | 17. Hizkuntzekin zerikusirik duten zientzia-arloak gizarteratzea. |
| | 19. Batua. |
| | 21. HABE, KM, JDN eta BBL. |
| | 23. Orain, 1996az geroztik, <i>Hizpide</i> izenarekin argitaratzen da. |

ZUTABE

1. Zutabe.
2. Euskalduntze-alfabetatze aldizkaria.
3. Donostia.
Gasteiz kalea, 3 (posta-kodea: 20018).

4. SAILKAPENAK

4.1. Sorrera urtearen arabera

Sailkapen honetan sorrera urtearen arabera agertzen dira aldizkari guztiak. Erroldaren azken mugan, 1999an, argitaratzen zirenek ez dute beste argibiderik. Tartean desagertu diren aldizkarien kasuan, azken alea argitaratu zen urtea ematen dugu. Horrela, bistan da aldizkari bakoitzaren iraupena. Izen bereko bi aldizkari ditugunetan, bereizi egin ditugu: herrialdea, udalerrria edo zenbakia, sorrera dataren arabera, ezarriaz.

SORRERA URTEA	ALDIZKARIA	DESAGERTZE URTEA	SORRERA URTEA	ALDIZKARIA	DESAGERTZE URTEA
1919	Zeruko Argia	1980	1960	Pan-Pin	1969
1931	Karmel		1961	Nere Laguna	1963
1932	Antzerti	1985	1962	Igela	1964
1944	Herria		1963	Bidez	1968
1945	Anaitasuna (Gipuz.)	1975	1964	Jaunaren Deia	
1947	Etchea	1975	1965	Gogoz	1968
1947	Gazte	1963	1966	Jarrai	1967
1948	Egan		1966	Kili-Kili	
1953	Anaitasuna (Bizkai.)	1983	1966	Principe De Viana	1983
1954	Euskaltzaleak	1960	1973	Pospolin	1974
1954	Otoizlari	1988	1973	Zabal	1976
1955	Artzai Deia		1974	Elhuyar-1	1998
1955	Nora?	1960	1974	Errota	1975
1956	Jakin		1974	Goldea	
1956	Luzaide	1964	1974	Hitz	1976
1956	Zeutzat	1963	1974	Zubizahar	1977
1957	Gure Erria	1984	1975	Euskarri (Bizkaia)	1976
1958	Goiz Argi	1986	1976	Etorkisuna	1977
1959	Arnas	1967	1976	Ikastola (Bizkaia)	1982
1959	Laiaketan (Pasiota.)	1969	1976	Nondik	1993
1959	Umeen Deia	1965	1977	Ipurbeltz	
1960	Erein	1967	1977	Pott	1980

SORRERA URTEA	ALDIZKARIA	DESAGERTZE URTEA	SORRERA URTEA	ALDIZKARIA	DESAGERTZE URTEA
1977	Zehatz	1980	1989	Ekaia	
1977	Zer		1989	Ene Bada!	1999
1978	Sustrai	1996	1989	Eta Kitto	
1979	Susa	1994	1989	Goierritarra	
1980	Argia		1989	Hegats	
1980	Oh! Euzkadi	1983	1989	Jazten	1994
1980	Saski Naski	1998	1989	Karkara	
1981	Aizu		1989	Tantak	
1981	Eguzki Berri		1990	Aekide	
1981	Habe		1990	Akatz	
1981	Ttipi-Ttapa		1990	Arranondo	
1982	Berba		1990	Berrigara	
1982	Euskaltzale		1990	Brankas	
1982	Habeko Mik	1991	1990	Deiadar	1999
1982	Idatz & Mintz		1990	Egunkaria	
1982	Ikasten		1990	Hazten	1994
1982	Isilik	1994	1990	Laisterkan	
1982	Laiaketan (Ikastola)		1990	Maliop	
1982	Literatur Gazeta	1989	1990	Uztaro	
1982	Maiatz		1991	Arrana	
1983	Hots	1988	1991	Bertsolari	
1983	Kandela	1984	1991	EKBerriak	
1983	Mintzo Eta Kantu		1991	Euskararen Nazioar.	1999
1983	Zutabe	1996	1991	Galtzaundi	
1984	Ihintza		1991	Ikastola (Gipuzkoa)	
1984	Ikimilikiliklik		1991	Jakingarriak	
1984	Itzulpen Saila		1991	Lokotxa	1994
1984	Korrok	1989	1991	Napartheid	
1984	Ttu Ttuá	1985	1991	Nontzebarri	
1984	Unescoren Albist.		1991	Oiartzun	
1985	Elhuyar-2		1992	Aiaupenanik	1997
1985	Ku-Kua		1992	Aretxagazeta	
1985	Plazara	1992	1992	Asmoz Eta Jakitez	1995
1986	Eguna	1990	1992	Barren	
1986	Hemen	1990	1992	Berrietan Blai	
1986	Hondarribia		1992	Eraz	
1986	Zabalik (1)	1995	1992	Eup	
1987	Euskerazaintza		1992	Euskararen Berripa.	
1987	Kontzejupetik		1992	Gauziok Au	1994
1987	Nafarroa Gaur	1990	1992	Gaztetxo	
1987	Orria	1992	1992	Geu Gasteiz	
1987	Orrua	1989	1992	Kukularra	
1988	Arrasate Press		1992	Kukuluma	
1988	Enbido	1990	1992	Murugarren	
1988	Kantilape		1992	Pulunpe	
1988	Zipotz	1991	1992	Santamariñe	1999
1989	Azpeitian Zer		1992	Txirritxola	
1989	Bagatoz		1992	Xirrixta	1998
1989	Bat		1993	Aiurri	
1989	Drogeteniturri		1993	Aldrebesa	1996
1989	Durango Swing	1993	1993	Bost Axola	1998
1989	Dzanga	1993	1993	Campusa	1999

SORRERA URTEA	ALDIZKARIA	DESAGERTZE URTEA	SORRERA URTEA	ALDIZKARIA	DESAGERTZE URTEA
1993	Pagoeta		1996	Pil-Pilean	
1993	Prentsetan Gabiz		1996	Tinko	
1993	Ttiki-Ttaka		1996	Txikitto	
1993	Txintxarri		1996	Ze Berri	
1993	Uema		1996	Zer Diño	
1993	Urlatik	1996	1997	Axular	
1994	Administrazioa Eus.		1997	Barnegats	
1994	Baleike		1997	Bertsozale	
1994	Berbaro		1997	Dzingoa	
1994	Berritxua		1997	Euskarri (Barakald.)	
1994	Gazteon Oihua		1997	Ikkira Mixkira	
1994	Geurean		1997	Karrika	
1994	Guaixe		1997	Kuxkuxero	
1994	Herria Eginez		1997	S. Mitxelena Ikasto.	
1994	Irunero		1997	San Juan	
1994	Irutxulo		1997	Topaberri	
1994	Lau Haizetara		1997	Txapla-Txapla	
1994	Ondiz		1997	Txo! Gazte	
1994	Txinpart		1997	Txoriberri	
1994	Zantzoa		1997	Vladimir	
1995	7 Baietz		1998	Atzoko Andoain...	
1995	Arkupe		1998	Auzoka	
1995	Bekoplaza		1998	Azken Hitza	
1995	Berrikaria		1998	Berbaixu	
1995	Bizarra Lepoan	1999	1998	Berriketan	
1995	Garesti		1998	Berton	
1995	Goibekokale		1998	Beterriko Liburua	
1995	Hik Hasi		1998	Bolo Bolo	
1995	Jatun Sunqu		1998	Eskura	
1995	Larrun	1995	1998	Fite!	
1995	Naxarbe		1998	Gu Geu	
1995	Ostiela!		1998	Gurean	
1995	Zazpiki	1997	1998	Hi!	
1995	Zorrotz-Morrotz		1998	Ikastolako Berriak	
1996	Aiba		1998	Lizeokide	
1996	Arabaldea		1998	Lo alo?	
1996	Atea		1998	San Ignacio BHI	
1996	Bost Press		1998	Seine	
1996	Bost Ttiki		1998	Txanpa	
1996	Eleria		1998	UEUkide	
1996	Entzun!		1998	Uzturpe	
1996	Etmetik Plazara		1998	Zenbat Gara	
1996	Galtzatxiki		1999	Bazka	
1996	Hitza Eta Ekintza		1999	Behinola	
1996	Hitza Hartu	1999	1999	Branka	
1996	Hizpide		1999	Buztanikara	
1996	Iep		1999	Eutsi	
1996	Ikusi Makusi		1999	Gaztetxulo	
1996	Irakutrezin		1999	Hamaika Litera	
1996	Kometa	1998	1999	Putz	
1996	Lazuna Hiztuna		1999	Trinka	
1996	Maxizatzen		1999	UK	
1996	Noaua!		1999	Uztarria	
1996	Orratz		1999	Zabalik (2)	
1996	Otamotz		1999	Zubizabal	

4.2. Herrialdeen eta herrien arabera

Herrialdeen eta herrien araberako sailkapena aldizkariaren helbidean oinarritua dago. Horrela, Jaurlaritzak argitaratzen dituen aldizkariak Araban, Gasteizko hirian, agertzen dira. Herri berean argitaratzen diren aldizkariak hurrenez hurren daude. Sailkapen honetan eroldako aldizkari guztiak daude.

ARABA		Derio	Txoriberri
Gasteiz	Administrazioa Eus.	Deustua	Hitza Hartu
Gasteiz	Antzerti	Deustua-Bilbo	Ikastola
Gasteiz	Arabaldea	Durango	Durango Swing
Gasteiz	Errota	Durango	Eraz
Gasteiz	Euskararen Berri.	Durango	Prentsetan Gabiz
Gasteiz	Geu Gasteiz	Durango	Topaberri
Gasteiz	Kandela	Erandio	Kukularra
La Puebla	Ttiki-Ttaka	Ermua	Drogeteniturri
Laudio	Berritxua	Etxebarria-Barin	Gure Erria
		Euba	Bidez
		Galdakao	Hazten
		Gernika-Lumo	Deiadar
		Gernika-Lumo	Eutsi
BIZKAIA		Getxo	Bizarra Lepoan
Algorta	Etorkisuna	Getxo	UK
Arrigorriaga	Berbaro	Igorre	Arrana
Artea	Zantzoa	Leioa	7 Baietz
Aulestia	Uema	Leioa	Campusa
Bakio	Txirritxola	Leioa	Ekaia
Barakaldo	Euskarri	Leioa	Ondiz
Basauri	Bost Axola	Lekeitio	Dzanga
Bermeo	Akatz	Lekeitio	Dzingoa
Bermeo	Anaitasuna	Lekeitio	Sustrai
Bermeo	Berrietan Blai	Markina	Gauziok Au
Bilbao	Arnas	Markina	Karmel
Bilbo	Aekide	Mendexa	Zeutzat
Bilbo	Aizu	Mungia	Nontzebarri
Bilbo	Aldrebesa	Ondarroa	Arranondo
Bilbo	Berbaixu	Ondarroa	Bolo Bolo
Bilbo	Berton	Ondarroa	Brankas
Bilbo	Eguna	Ondarroa	Zubizahar
Bilbo	Euskaltzale	Orozko	Zer Diño
Bilbo	Euskarri	Plentzia	Txapla-Txapla
Bilbo	Euskerazaintza	Sondika	Ku-Kua
Bilbo	Garesti	Sopela	Seine
Bilbo	Gogoz	Urduliz	Santamariñe
Bilbo	Idatz & Mintz	Zornotza	Ikusi Makusi
Bilbo	Kili-Kili	Zornotza	Tinko
Bilbo	San Ignacio BHI		
Bilbo	Ttu Ttuá		
Bilbo	UEUkide	GIPUZKOA	
Bilbo	Uztaro	Alegi	San Juan
Bilbo	Zenbat Gara	Andoain	Aiurri
Bilbo	Zer	Andoain	Atzoko Andoain...
Bilbo	Zorrotz-Morrotz		

Andoain	Beterriko Liburua	Donostia	Jakin
Andoain	Bost Press	Donostia	Literatur Gazeta
Andoain	Bost Tiki	Donostia	Lizeokide
Andoain	Egunkaria	Donostia	Lokotxa
Andoain	Ikastolako Berriak	Donostia	Oh! Euzkadi
Andoain	Orria	Donostia	Pan-Pin
Anoeta	Naxarbe	Donostia	Pott
Aretxabaleta	Aretxagazeta	Donostia	Saski Naski
Arrasate	Arrasate Press	Donostia	Susa
Arrasate	Atea	Donostia	Tantak
Arrasate	Geurean	Donostia	Unescoren Albist.
Arrasate	Jazten	Donostia	Zabalik (1)
Arrasate	Putz	Donostia	Zabalik (2)
Ataun	Eguzki Berri	Donostia	Zazpiki
Ataun	Nondik	Donostia	Zehatz
Azkoitia	Buztanikara	Donostia	Zutabe
Azkoitia	Maxixatzen	Eibar	Eta Kitto
Azpeitia	Azpeitian Zer	Eibar	Txikitto
Azpeitia	Ikasten	Elgeta	Goibekokale
Azpeitia	Uztarria	Elgoibar	Barren
Bergara	Aiba	Elgoibar	Hamaika Litera
Bergara	Berrigara	Errenteria	Lau Haizetara
Deba	Berriketan	Eskoriatza	Jakingarriak
Deba	Goldea	Eskoriatza	Kukuluma
Donostia	Arkupe	Eskoriatza	Ze Berri
Donostia	Asmoz Eta Jakitez	Ezkio-Itsaso	Eup
Donostia	Auzoka	Hernani	Gaztetxo
Donostia	Barnegats	Hernani	Hemen
Donostia	Bat	Hernani	Hitza Eta Ekintza
Donostia	Behinola	Hernani	Txo! Gazte
Donostia	Berba	Hondarribia	Hondarribia
Donostia	Berrikaria	Ibarra	Uzturpe
Donostia	Bertsolari	Irun	Azken Hitza
Donostia	Bertsozale	Irun	Gazteon Oihua
Donostia	Egan	Irun	Gurean
Donostia	EKBerriak	Irun	Irunero
Donostia	Eleria	Irun	Kometa
Donostia	Enbido	Irun	Nora?
Donostia	Euskararen Nazioar.	Irun	Plazara
Donostia	Fite!	Irun	Xirrixta
Donostia	Gaztetxulo	Irun-Hondarrib.	Bagatoz
Donostia	Goiz Argi	Itsasondo	Kantilape
Donostia	Habe	Lasarte-Oria	Argia
Donostia	Habeko Mik	Lasarte-Oria	Hik Hasi
Donostia	Hegats	Lasarte-Oria	Irakurtezin
Donostia	Herria Eginez	Lasarte-Oria	Larrun
Donostia	Hizpide	Lasarte-Oria	Txintzarri
Donostia	Ihintza	Lasarte-Oria	Zipotz
Donostia	Ikastola	Lazkao	Jaunaren Deia
Donostia	Ipurbeltz	Lazkao	Mintzo Eta Kantu
Donostia	Irutxulo	Lea Artibai	Pospolin
Donostia	Isilik	Legazpi	Ene Bada!
Donostia	Itzulpen Saila	Legazpi	Hi!

Legazpi	Hots	Baiona	Gazte
Leintz Gatzaga	Urlatik	Baiona	Herria
Lezo	Orratz	Baiona	Hitz
Oiartzun	Bekoplaza	Baiona	Iep
Oiartzun	Oiartzun	Baiona	Maiatz
Oiartzun	Txinpart	Baiona	Zabal
Oñati	Erein	Maule	Trinka
Oñati	Kontzejupetik		
Ordizia	Goierritarra		
Ordizia	Ostiela!	NAFARROA	
Orio	Karkara	Araitz	Malioppe
Orio	Kuxkuxero	Burlata	Axular
Pasai Donibane	Txanpa	Gares	Murugarren
Pasaia	Branka	Iruñea	Eskura
Soraluze	Pil-Pilean	Iruñea	Karrika
Tolosa	Anaitasuna	Iruñea	Korrok
Tolosa	Entzun!	Iruñea	Nafarroa Gaur
Tolosa	Galtzatxiki	Iruñea	Naparthoid
Tolosa	Galtzaundi	Iruñea	Principe De Viana
Urnieta	Nere Laguna	Iruñea	Umeen Deia
Urretxu	Jarrai	Iruñea	Zeruko Argia
Urretxu	Laiaketan (Pasio.)	Lakuntza	Aiaupenanik
Urretxu	Laiaketan (Ikastola)	Lakuntza	Gu Geu
Urretxu	Otamotz	Lakuntza	Ikimilikiliklik
Usurbil	Elhuyar-1	Lakuntza	Laisterkan
Usurbil	Elhuyar-2	Larraintzar	Pulunpe
Usurbil	Noaua!	Lesaka	Etzetik Plazara
Zarautz	Bazka	Lesaka	Ttipi-Ttapa
Zarautz	Pagoeta	Luzaide	Luzaide
Zarautz	S. Mitxelena Ikasto.	Saldias	Artzai Deia
Zarautz	Vladimir	Urdiain	Guaixe
Zarautz	Zubizabal		
Zumaia	Baleike		
Zumaia	Ixkira Mixkira	BESTEAK	
Zumaia	Lazuna Hitzuna	Buenos Aires	Euskaltzaleak
Zumaia	Lo alo?	Madril	Jatun Sunqu
Zumaia	Orrua	Paris	Igela

IPARRALDEA

Ahurti	Otoizlari
Baiona	Etchea

4.3. Gaien arabera

Aldizkariak gaiaren arabera sailkatzeko ardatz hauek hartu ditugu: berri-paperak, eskoletakoak, hurbilekoak, informazio orokorra, komiki eta ipuinak, kultura orokorra, literatura, eta bereziak. Berezien multzoan politika, hezkuntza, erlijioa, zuzenbidea, bertsolaritza, hizkuntza, kirola eta abar jarri ditugu batera, bestelako gaiak dituztenekin alderatuta aldizkari gutxi argitaratzen direlako.

BEREZIAK

7 Baietz
 Anaitasuna (Gipuzkoa)
 Antzerti
 Bat
 Bertsolari
 Bertsozale
 Brankas
 Buztanikara
 Ekaia
 Eleria
 Elhuyar-1
 Elhuyar-2
 Entzun!
 Euskaltzale
 Euskararen Nazio.
 Euskarri (Bilbo)
 Euskerazaintza
 Fite!
 Galtzatxiki
 Gazte
 Gaztetxulo
 Habe
 Herria Eginez
 Hik Hasi
 Hitz
 Hitza Eta Ekintza
 Hizpide
 Ikastola (Gipuzkoa)
 Irakutrezin
 Isilik
 Itzulpen Saila
 Jakingarriak
 Jatun Sunqu
 Jaunaren Deia
 Jazten
 Kukuluma
 Laiaketan (Pasiotarrak)
 Luzaide
 Mintzo Eta Kantu
 Nora?
 Otoizlari
 Pagoeta
 Pospolin
 Saski Naski
 Tantak
 Zazpiki
 Zer
 Zutabe

BERRIPAPERAK

Aekide
 Aiba
 Asmoz Eta Jakitez
 Atea
 Barnegats
 Berba
 Berrikaria
 Campusa
 EKBerriak
 Errota
 Eskura
 Etorkisuna
 Euskararen Berripapera
 Geurean
 Ikastolako Berriak
 Karrika
 Kukularra
 Kuxuxero
 Laiaketan (Ikastola)
 Lizeokide
 Naxarbe
 Nere Laguna
 Orria
 S. Mitxelena Ikastola
 San Juan
 Seine
 Tinko
 Topaberri
 Txapla-Txapla
 Uema
 UEUkide
 Uzturpe

ESKOLETAKOAK

Arabaldea
 Arrana
 Auzoka
 Azken Hitza
 Bagatoz
 Bekoplaza
 Berbaixu
 Berritxua
 Bost Press
 Bost Ttiki
 Eguzki Berri
 Garesti
 Gazteon Oihua
 Gaztetxo
 Goldea
 Gu Geu

Gurean
 Hazten
 Hi!
 Iep
 Ikasten
 Ikastola (Bizkaia)
 Ikimilikiliklik
 Ikusi Makusi
 Ixkira Mixkira
 Ku-Kua
 Laisterkan
 Lazuna Hitzuna
 Lo alo?
 Ondiz
 Prentsetan Gabiz
 San Ignacio BHI
 Txanpa
 Txikitto
 Txinpart
 Txo! Gazte
 Zubizahar

HURBILEKOAK

Aiaupenanik
 Aiurri
 Akatz
 Aretxagazeta
 Arranondo
 Arrasate Press
 Axular
 Azpeitian Zer
 Baleike
 Barren
 Barbaro
 Berrietan Blai
 Berrigara
 Berriketan
 Berton
 Bizarra Lepoan
 Bolo Bolo
 Bost Axola
 Branka
 Deiarar
 Drogeteniturri
 Durango Swing
 Dzanga
 Dzingoa
 Ene Bada!
 Eraz
 Eta Kitto
 Eup
 Euskarri (Barakaldo)

Eutsi
Galtzaundi
Gauziok Au
Geu Gasteiz
Goibekokale
Goierriarra
Guaixe
Gure Erria
Herria
Hitza Hartu
Hondarribia
Hots
Irunero
Irutxulo
Kantilape
Karkara
Kontzejupetik
Lau Haizetara
Lokotxa
Maliop
Maxizatzen
Murugarren
Noaua!
Nontzebarri
Oiarzun
Orratx
Orrua
Otamotz
Pil-Pilean
Pulunpe
Santamariñe
Ttipi-Ttapa
Txintxarri
Txirritxola
Txoriberri
UK
Urlatik
Uztarria
Ze Berri
Zer Diño
Zeutzat
Zipotz
Zorrotz-Morrotz

INFORMAZIO OROKORRA

Anaitasuna (Bilbo)
Argia
Eguna
Egunkaria
Etchea
Etxetik Plazara
Goiz Argi
Hemen
Nafarroa Gaur
Zabalik (1)
Zabalik (2)
Zeruko Argia

KOMIKI ETA IPUINAK

Enbido
Habeko Mik
Ipurbeltz
Kili-Kili
Kometa
Napartheid
Pan-Pin
Umeen Deia
Xirrixta

KULTURA OROKORRA

Administrazioa Euskaraz
Aizu
Aldrebesa
Arkupe
Arnas
Artzai Deia
Atzoko Andoain eta Ando.
Bazka
Bidez
Egan
Erein
Euskaltzaleak

Gogoz
Igela
Jakin
Jarrai
Karmel
Larrun
Nondik
Ostiela!
Principe De Viana
Sustraia
Trinka
Unescoren Albistaria
Uztaro
Zabal
Zehatz
Zenbat Gara

LITERATURA

Behinola
Beterriko Liburua
Hamaika Litera
Hegats
Idatz & Mintz
Ihintza
Kandela
Korrok
Literatur Gazeta
Maiatz
Oh! Euzkadi
Plazara
Pott
Putz
Susa
Ttiki-Ttaka
Ttu Ttuá
Vladimir
Zantzoa
Zubizabal

4.4. Maiztasunaren arabera

Gaur egun argitaratzen diren aldizkarien maiztasunaren arabera egin dugu sailkapen hau. Sarrien argitaratzen direnak aurrena jarri ditugu eta bakanago argitaratzen direnak segidan, hau da, maiztasun handiena duenetik txikiena duenera.

EGUNERO

Egunkaria

ASTERO

Argia
Arrasate Press
Barren
Berrigara
Eraz
Eta Kitto
Herria
Irutxulo
Zabalik

HAMABOSTERO

Aiurri
Akatz
Aretxagazeta
Goierritarra
Noaua!
Ttipi-Ttapa
Txintxarri

HILABETERO

Aizu
Arranondo
Atzoko Andoain eta Ando...
Azpeitian Zer
Baleike
Berrietan Blai
Berriketan
Berton
Bertsozale
Branka
Drogeteniturrri
Elhuyar-2
Euskararen Berripapera
Eutsi
Galtzaundi
Gaztetxulo
Geu Gasteiz
Geurean
Goibekokale
Guaixe
Habe
Hik Hasi
Hondarribia
Ikastola (Gipuzkoa)

Ipurbeltz
Irunero
Karkara
Karrika
Kili-Kili
Kontzejupetik
Lau Haizetara
Maliopé
Maxixatzen
Mintzo Eta Kantu
Orratx
Otamotz
Txapla-Txapla
Txikitto
UK
Uztarria
Vladimir
Ze Berri
Zer

BIHILABETERO

7 Baietz
Administrazioa Euskaraz
Aekide
Brankas
Entzun!
Etxetik Plazara
Eup
Euskaltzale
Fite!
Ikastolako Berriak
Irakutrezin
Jakin
Kuxkuxero
Nontzebarri
Pil-Pilean
Putz
Topaberri
Txoriberri
Uzturpe

HIRUHILABETERO

Atea
Axular
Bat
Bazka
Berba
Bertsolari
Beterriko Liburua
Bolo Bolo

Bost Press
Bost Ttiki
Buztanikara
Egan
EKBerriak
Euskarri (Barakaldo)
Euskerazaintza
Galtzatxiki
Hi!
Hitza Eta Ekintza
Karmel
Murugarren
Napartheid
Oartzun
Ostiela!
Pulunpe
Txirritxola
Unescoren Albistaria
Uztaro
Zer Diño

Kukuluma
Laiaketan (Ikastola)
Laisterkan
Lazuna Hiztuna
Lizeokide
Maiatz
Naxarbe
Pagoeta
San Juan
Seine
Tinko
Trinka
Txanpa
Txinpart
Txo! Gazte
Zenbat Gara
Zorrotz-Morrotz

LAUHILABETERO

Aiba
Arabaldea
Arkupe
Artzai Deia
Auzoka
Azken Hitza
Berbaro
Berrikaria
Berritxua
Dzingoa
Eguzki Berri
Eskura
Gazteon Oihua
Gaztetxo
Gu Geu
Gurean
Hamaika Litera
Herria Eginez
Hizpide
lep
Ihintza
Ikasten
Ikimilikiliklik
Ikusi Makusi
Ikkira Mixkira
Jakingarriak
Jatun Sunqu
Kantilape
Ku-Kua
Kukularra

SEIHILABETERO

Arrana
Bagatoz
Barnegats
Behinola
Bekoplaza
Berbaixu
Ekaia
Eleria
Garesti
Goldea
Hegats
Idatz & Mintz
Itzulpen Saila
Jaunaren Deia
Lo Alo
Ondiz
Prentsetan Gabiz
Salbatore Mitxelena Ikastola
San Ignacio BHI
Tantak
Ttiki-Ttaka
Uema
UEUkide
Zantzoa
Zubizabal

4.5. Tiradaren arabera

Sailkapen honetan gaur egun argitaratzen diren aldizkariak hartu ditugu kontuan. Sailkapena tiradaren arabera eginga dago: tirada handiena duenetik txikiena duenera.

Jatun Sunqu	55.000	Herria	3.000
Ikastola (Gipuzk.)	43.500	Oiartzun	3.000
Uema	19.000	Putz	3.000
Aizu	15.000	Aretxagazeta	2.500
Egunkaria	13.059	Axular	2.500
Euskararen Berri.	13.000	Beterriko Liburua	2.500
Administrazioa E.	10.000	Branka	2.500
Argia	10.000	Geu Gasteiz	2.500
Gaztetxulo	10.000	Herria Eginez	2.500
Arkupe	9.000	Ipurbeltz	2.500
Euskaltzale	8.000	Karkara	2.500
Ttipi-Ttapa	8.000	Lau Haizetara	2.500
Auzoka	7.800	Ze Berri	2.500
Seine	7.500	Akatz	2.300
Eta Kitto	7.100	Noaua!	2.300
Etzetik Plazara	7.100	Elhuyar-2	2.100
Goierritarra	6.800	Aekide	2.000
Arrasate Press	6.400	Arabaldea	2.000
Berrietan Blai	6.000	Bagatoz	2.000
Kili-Kili	6.000	Dzingoa	2.000
Txoriberri	6.000	Entzun!	2.000
Zabalik	6.000	Euskarri (Barak.)	2.000
Galtzatxiki	5.500	Orratx	2.000
Galtzaundi	5.500	Otamotz	2.000
Berrigara	5.100	Zenbat Gara	2.000
Hik Hasi	5.000	Drogeteniturri	1.900
Irutxulo	5.000	Habe	1.750
UK	5.000	Ikasten	1.700
Uztarria	4.500	Ostiela!	1.700
Barren	4.000	Pil-Pilean	1.700
Berbaro	4.000	Lizeokide	1.600
Hamaika Litera	4.000	Bertsozale	1.500
Txintxarri	4.000	EKBerriak	1.500
Kontzejupetik	3.800	Idatz & Mintz	1.500
Aiurri	3.500	Irakutrezin	1.500
Arranondo	3.500	Jakingarriak	1.500
Azpeitian Zer	3.500	Kukuluma	1.500
Irunero	3.500	Maxixatzen	1.500
Karrika	3.500	Napartheid	1.500
Prentsetan Gabiz	3.500	S. Mitxelena Ikas.	1.500
Txanpa	3.500	Txikitto	1.350
Brankas	3.200	Egan	1.300
Guaixe	3.200	Maliopé	1.300
Jakin	3.150	Zer	1.300
Atzoko Andoain...	3.000	Karmel	1.250
Bertsolari	3.000	7 Baietz	1.200
Eraz	3.000	Bat	1.200

Euskerazaintza	1.200	Arrana	500
Eutsi	1.200	Barnegats	500
Fite!	1.200	Bekoplaza	500
Geurean	1.200	Berriketan	500
Gu Geu	1.200	Ekaia	500
Hitza Eta Ekintza	1.200	Gaztetxo	500
Hondarribia	1.200	Ikusi Makusi	500
Laisterkan	1.200	Lazuna Hitzuna	500
Maiatz	1.200	Tinko	500
Pagoeta	1.200	Topaberri	500
Pulunpe	1.200	Txo! Gazte	500
Uzturpe	1.200	Goldea	400
Atea	1.000	Ihintza	400
Baleike	1.000	Ixkira Mixkira	400
Bazka	1.000	Jaunaren Deia	400
Behinola	1.000	San Juan	300
Berba	1.000	Tantak	300
Berton	1.000	Zantzoa	300
Bolo Bolo	1.000	Zubizabal	300
Eskura	1.000	Kantilape	250
Laiaketan (Ikas.)	1.000	Lo alo?	250
Nontzebarri	1.000	Murugarren	250
Txapla-Txapla	1.000	Naxarbe	250
Unescoren Albist.	1.000	Ttiki-Ttaka	250
Uztaro	1.000	Buztanikara	200
Zorrotz-Morrotz	1.000	Eup	200
Aiba	800	Gurean	200
Bost Press	800	Ondiz	200
Ikastolako Berriak	800	Trinka	200
Mintzo Eta Kantu	800	Berbaixu	180
Txirritxola	800	Eguzki Berri	175
Bost Ttiki	750	Gazteon Oihua	175
Zer Diño	750	Ku-Kua	170
Hegats	700	San Ignacio BHI	150
Hi!	700	Garesti	125
Kuxkuxero	700	Iep	110
Txinpart	700	Azken Hitza	100
UEUkide	660	Berritxua	100
Goibekokale	650	Artzai Deia	80
Berrikaria	600	Vladimir	80
Eleria	600	Ikimilikiliklik	40
Hizpide	600		
Kukularra	600		
Itzulpen Saila	550		

5. ERROLDAREN EMAITZEI BURUZKO ONDORIO BATZUK

5.1. Sarrera

Erroldatu ditugun aldizkariak aztertu ondoren, hainbat ondorio atera ditugu bilakaera eta zabalkundeaz.

Hasteko, 258 aldizkarien berri eman dugu gure errolda honetan. Javier Diaz Nocik egindako erroldarekin alderatuz gero, ikusten dugu 1834-1939 urte bitartean euskaraz idatzitako 38 aldizkari erroldatzen dituela, eta 28 aldizkari 1939tik 1959ra bitarte. Errolda honetan jasotako aldizkari guztiak, nolabait, argitaratuak izan dira 1959-2000 urte artean. Aldizkari hauetatik, 1999an 179 argitaratzen ziren; 1959tik hona 237 aldizkari sortu dira; beste 21ak aurretik sortuak zeuden; eta 79 desagertu egin dira.

5.2. Bilakaera

5.2.1. BILAKAERA OROKORRA

Bilakaera orokorraren aipamena egin aurretik, 1960a baino lehenagotik sortu eta oraindik argitaratzen diren aldizkarien argibide batzuk emango ditugu.

Gorabehera ugari izan arren, 1960. urte aurretiko 21 aldizkarietatik sei oraindik argitaratzen dira. Aldizkari hauetaz ari gara: *Karmel*, *Herria*, *Egan*, *Artzai Deia*, *Jakin* eta *Zeruko Argia*. Azken horrek izen aldaketa izan zuen eta gaur *Argia* deitzen da.

Honako hauek dira aldizkari bakoitzak izan dituen aldaketa garrantzitsu batzuk:

Karmel. *Karmel*-ek izen aldaketa franko izan ditu: 1931tik 1936ra, *Karmengo Argia*; 1951tik 1961era, *Karmengo Amaren Egutegia*; 1962tik 1969ra debekatua egon zen, eta liburuxka bezala argitaratu zen; eta 1970etik gaur arte *Karmel* du izena¹⁹. Gehigarri bezala, *Olerti* hiruhilabetekaria ere berak argitaratzen zuen.

Herria. *Herria* izenez ezagutzen dugun astekariak 1886az geroztik argitaratzen zen *Euskalduna* aldizkaria ordezkatu zuen 1944an.

Jakin. Honek bi etenaldi izan ditu: lehen argitaratze aldi, 1956-1969, etenaldia izan zuen 1962-1963 urte bitartean; bigarren etenaldia 1971tik 1976ra izan zen. 1977an birsortua, eta, geroztik, etenik gabe argitaratzen da.

19. *Karmel* (210. zenb.).

Artzai Deia. Aldizkari hau 1955ean Lekarotzen sortu zen hamabostekari bezala; 1968tik oraina Saldiasko parrokoak argitaratzen du. Azkenaldian, urtean hiru bider.

Egan. Aldizkari honetan aipatu beharrekoa da 1948tik 1954a arte elebiduna izan zela; gaztelania erabiltzen zuen.

Zeruko Argia. Aldizkari hau sorreran Iruñean argitaratzen zen. Lehen aldia 1919tik 1936ra izan zen. Kutsu erlijiosoa eta kultura asmoa, biak zituen. Etenaldiaren ondoren, bigarren aldia 1954tik 1960ra egin zuen, eta bi urte isilean egon ondoren, hirugarren aldiari ekin zion, 1963tik 1980ra. Gerra osteko euskal kulturaren berpizkundearen adibide gorena izan zen. 1980an *Argia* izena hartu zuen. Azpimarratzea komeni da, nahasmenak uxatzeko, *Argia* izeneko beste bi aldizkari izan zirela, bata Donostian, 1921etik 1936ra, eta bestea Caracasen, 1946tik 1948ra.

Gure erroldan agertzen direnen artean, 1960a baino lehenago sortu baina gaur egun argitaratzen ez diren 15 aldizkari daude: *Antzerti*, *Anaitasuna* (Bizkaia), *Anaitauna* (Gipuzkoa), *Etchea*, *Gazte*, *Euskaltzaleak*, *Otoizlari*, *Nora?*, *Luzaide*, *Zeutzat*, *Gure Erria*, *Goiz Argi*, *Arnas*, *Laiaketan* (Pasiotarrena) eta *Umeen Deia*.

Antzinako aldizkarien pasadizo hauek ikusi ondoren, aldizkariak orokorrean izandako bilakaera jorratuko dugu.


Berrogei urte hauetan gorabehera ugari izan da. Aldizkariak bilakaera gizarte antolakuntza edo egoera politikoak izan duenari lotua egon izan dela esan daiteke. Hori adierazteko, bi aro arrunt ezberdinak aldera daitezke, batez ere: bata, frankismoaren garai gordinetakoa, eta bestea, Euskararen Normalizaziorako Legearen aplikazioaren garaikoa (1982tik hona). Sortu direnak bakarrik hartuko ditugu kontuan. Horrela, 1960tik 1980ra, 20 urtetan, 27 aldizkari sortu ziren. Garai horretan 22 desagertu baziren ere, 1980. urtean 24 argitaratzen ziren. 1980tik 1989ra bitartean suspertze txiki bat izan zen, beste 42 sortuaz, eta 1989tik 2000ra 167 sortu ziren (ikus 1. grafikoa). Azken hamarkadan hazkunde handia izan da.

Bestalde, azken hogeitau urteotako aldizkariak iraupenak ere hoberako bilakaera izan duela ikusten da. Bost urteka: 1980-84 aldian %65 galdu ziren; 1985-89 aldian, %27; 1990-94 aldian, %16; eta 1995-99 urte bitartean, %18. Beraz, desagertze joera beherakoa izan da. Sortu-desagertu direnen datuetan oinarritu garenez, aldizkariak izan zezaketen etenaldia ezkutuan geratzen da. Hazkunde horretan, Euskararen Normalizaziorako Legearen garapenez gain, 1988an sortu zen *Arrasate Press*-ek eragina izan zuelakoan gaude, batez ere herri aldizkariak hartu zuten estiloan, bai formaz eta bai edukiz ere²⁰.

20. Joxe Arantzabalek, *Arrasate Press*ko sortzaileetako bat eta zuzendari ere izan zenak, herri aldizkariak buruz ezaugarri hauek ematen ditu: egitura profesionala, doakoak, publizitatea eta herri erakundeak laguntza dute, etxez etxe banatzen dira (eskaten duten herritar guztiei),

1. grafikoa

1960 eta 1999 bitartean sortu diren aldizkariak



Prensa idatzian aldaketa azpimarragarri berezirik agertzen ez bada ere, Euskararen Normalizaziorako Legeak bestelako eraginik izan zuen. Alde batetik, Euskadi Irratia jarri zen abian (baita Radio Euskadi ere, gaztelaniaz), eta beste aldetik, Euskal Telebista eta gaztelaniazko Euskal Telebista. Geroago, 1986-1990 urte tartean, gaztelaniaz idatzitako egunkarien euskarazko gehigarriak eragin zituen lege horrek: hauen artean, azpimarragarriak dira *Deiaren Eguna* (40 or.) eta *Egin-en Hemen* (40 or.). *Diario Vasco*-ren *Zabalik* gehigarriak 4 orrialde izaten zituen (honek 1995era arte iraun zuen) eta *Navarra Hoyren Nafarroa Gaur*-ek 8 orrialde izan ohi zituen. Guztiak asterokoak ziren. *Euskaldunon Egunkaria* sortu zen 1990ean; ez dakigu Euskararen Normalizaziorako Legeak zenbaterainoko eragina izan zuen. Aldizkarien bilakaerari eragin ziezaioketen finantzaketa modu berria ere ekarri zuen legeak: diru laguntzak, alegia.

5.2.2. HERRIALDEKA BILAKAERA

5.2.2.1. Araba

Arabaren 8 aldizkarik izan dute egoitza; horietatik 6 argitaratzen dira gaur egun. Beste biak: bata, antzerkiari buruzko edukiekin, *Antzerti*, 1932an sortu eta 1985ean desagertu zen, eta bestea, literaturaz, *Kandela*, 1983an sortu eta 1984an desagertu zen.

edukietan tokira mugatuta eta autoedizioz eginak. Adieraztekoa da euskara elkarteak direla jabeak, eta hauek bazkideen ekarpena ere garrantzitsua dela, dirutan, gestioan eta idazten eskaintzen duten laguntzagatik.

5.2.2.2. Bizkaia

Bizkaian 58 aldizkari argitaratu dira. Hauetatik, kultura orokorraz aritzen den *Karmel* hiruhilabetekaria 1931n sortu zen, eta gaur egun argitaratzen da. Beste aldizkari ospetsu bat *Anaitasuna* (1953-1983) zen, informazio orokorreko hilabetekaria -gero, hamabostekaria. Beste aldizkari aipagarri batzuk hauek dira: *Arnas* (1959-1967, 16 ale), urtean bitan argitaratzen zen informazio orokorreko aldizkaria; *Olerri* (1959-1983), urtean behin argitaratzen zen poesia aldizkaria; *Ttu Ttuá* (1984-1985), literaturari buruzko lauhilabetekaria.

Zeutzat, 1956tik 1963ra hilero argitaratua, eta *Gure Erria*, 1957tik 1984ra arteko hilabetekaria. Bi hauek herri aldizkariak ziren; horretan, *Herria*-rekin batera, aitzindari jo daitezke.

Gainerako 47ak argitaratu egiten dira gaur egun.

Azpimarragarria iruditu zaigu Ondarroako *Noizbeinka* aldizkariko 2. zenbakian²¹ (1996ko apirila) ematen den informazioa: Lekeitioko Institutuan egindako azterketa batean Lea-Artibai eskualdean 28 aldizkariaren berri dakar. Hauetatik 18 euskara hutsean argitaratutakoak eta besteak elebidunak, euskarak leku handia duela; batez ere, 70eko hamarkadako berripaperen antzeko estiloan eginak, elizako buletin antzera, aldiro herrian banatzen zirenak.

5.2.2.3. Gipuzkoa

Gipuzkoan, kultura orokorreko *Egan* 1948an sortu zenetik gaur arte, 125 aldizkari argitaratu dira. Gaur ere, gutxienez, 102 aldizkari argitaratzen dira.

Desagertutakoen artean, honakoak daude: *Goiz Argi* (1958-1986), informazio orokorreko hamabostekaria; *Elhuyar-1* (1974-1998), urtean bitan argitaratzen zen zientzia eta teknikari buruzko aldizkaria; *Zutabe* (1983-1996), hizkuntzalaritzaren inguruko lauhilabetekaria, gero *Hizpide* bihurtu zena; *Susa* (1979-1994), urtean bitan argitaratzen zen literatura aldizkaria; pedagogiari buruz urtean bitan argitaratzen zen *Isilik* (1982-1994); *Habeko Mik* (1982-1991) bihilabetekaria, komiki eta ipuinekin; eta *Larrun* (1985-1994), kultura orokorreko hilabetekaria, orain aldizkari elektronikoa dena.

5.2.2.4. Iparraldea

Gure erroldan Iparraldeko 9 aldizkari ditugu. Hauetako hiru argitaratzen dira orain ere. Desagertutakoen artean, hauek dira garrantzitsuenak: *Etchea* (1947-1975), informazio orokorreko hilabetekaria; *Otoizlari* (1954-1988), erlijioa gai zuen hiruhilabetekaria; *Gazte* (1956-1963), gazteen inguruko hilabete-

21. "Gure herrietako aldizkariak". *Noizbeinka* (2. zenb.), Ondarroa: Batxillergo Institutua, 1996; 4. or.

karia; hurrei zuzendutako *Xirrixta* (1992-1998) hilabetekaria; *Kometa* (1996-1998) bihilabetekaria, komiki eta ipuinekin; eta *Zabal* (1973-1976), kultura orokorreko bihilabetekaria.

5.2.2.5. Nafarroa

Nafarroan, denboraldi honetan, 20 aldizkari sortu dira, eta gaur egun 16 argitaratzen dira. Izena aldatu dutenen artean *Zeruko Argia* azpimarratuko genuke: 1919an sortua eta 1980az geroztik *Argia* izenez jarraitzen duena. Berezi kontuan hartzekoak hauek dira: desagertutako *Umeen Deia* (1959-1965), komiki eta ipuinen hilabetekaria, eta *Príncipe de Viana* (1966-1983), kultura orokorreko hilabetekaria. Desagertu diren beste batzuk: *Korrok* (1984-1989), literatura lauhilabetekaria, eta *Aiaupenanik* (1992-1997), urtean hirutan argitaratzen zen herri aldizkaria.

5.2.3. EDUKIEN ARABERAKO BILAKAERA

Aldizkarien edukiei dagokienez, herri aldizkariak nabarmentzen dira 1989tik aurrera (ikus 1. taula).

1. taula: Argitaratutako aldizkariak gaien arabera (ehunekotan)


Gaia	1960aarte	1960-1984	1985-1989	1990-1994	1995-1999
Berripaperak	0	6	4	9	16
Eskoletako prentsa	0	9	10	11	20
Gai bereziak	27	36	32	27	20
Hurbilekoak	16	9	12	32	31
Informazio orokorra	21	6	10	3	1
Komikiak eta ipuinak	5	9	8	4	2
Kultura orokorra	26	11	11	8	6
Literatura	5	14	13	6	4
GUZTIRA	10	100	100	100	100

Gero eta herri aldizkari gehiago argitaratzen dira: aldizkari guztien herena inguru dira azken hamar urte hauetan. Estilo berekoa ez den arren, herri aldizkarien artean sartu dugu baita ere *Herria* astekaria, 1944an sortua.

Euskaraz idatzitako prentsaren artean, tipologia berria ezartzen duten eskoletako prentsa eta berripapera, biak, goraka doaz. Aitzindari jo daitezke eskoletako prentsan *Goldea*, 1974an sortua, eta berripaperetan *Berba* eta *Laia-*

ketan (Ikastolakoa), biak 1982an sortuak. Eskoletako prentsaren aldizkari kopurua %20ra iristen da azken urte hauetan, eta berripaperena %16ra. Gai bereziak jorratzen dituzten aldizkarien multzoa, berriz, besteekin alderatuz, beheraka doa azken urteotan: %36tik %20ra egin dute. Informazio orokorraz arduratzen diren aldizkariak ere beherakada jasan dute, %10etik %1era.

2. grafikoa



Gaur egungo egoerak agertzen du hurbileko aldizkariak direla garrantzi berezia hartzen dutenak, kontuan izanik mota batekoek zein bestekoek duten maiztasuna eta tirada (ikus 2. grafikoa). Gainerakoen artean ez da ezer nabarmenezkorik ageri.

5.2.4. BANAKETA EREMUAREN BILAKAERA

Banaketa eremua aldagaitzat hartuz gero, hauxe agertzen da (ikus 2. taula).

2. taula: Banaketa eremua (ehunekotan)


Eremua	1960aarte	1960-1984	1985-1989	1990-1994	1995-1999
Hurbilekoak	16	8	14	38	38
Euskal Herria	79	78	74	48	35
GUZTIRA	100	100	100	100	100

Euskal Herria eremu hartzen dutenek behera egin dute, eta hurbilekoen eremua hartzen dutenek, aldiz, gora. Bestalde, herrialdea eremu hartzen duten aldizkarietan ez dago aldaketa nabarmenik, eta ez dugu taulan adierazi. Taulan ez dira agertzen berripaperak, hauen eremua ezin delako zehaztu, baina horiek gora egin dute.

5.2.5. HERRIALDEKAKO EGOERA

Bilakaera hau guztia izan eta gero, aipagarria da Gipuzkoak herrialdeka duen lehentasuna 1999an (ikus 3. grafikoa); jorratzen duten gaia edozein dela ere, herrialde horretan argitaratzen da aldizkari gehien. Gipuzkoaren ondoren Bizkaia dugu, eta kontuan hartu behar da bi probintzia hauetan euskaldun kopuru bert-sua bizi dela. Nafarroa, argitalpen kopuruari dagokionez, hirugarrena da.

3. grafikoa




Gaien aldetik, entretenimendu (komikiak, ipuinak, denporapasak,...) eta gaztetxoei zuzendutakoak dira aldizkari gutxien dutenak, eta jasotako iritzien arabera, aldizkari mota hauen falta sumatzen da.

5.3. Zabalkundea

5.3.1. ARGITALPENEN MAIZTASUNA

Argitalpenen maiztasuna hartuz gero, sailkapenak hurrenkera hau hartzen du aldizkari gehien direnetik gutxiago direnera: lauhilabetekariak, %26; hilabetekariak, %24; hiruhilabetekariak, %15; eta sei hilabetekariak, %14. Hilabetekariak alde batera utzita, gainerakoak oso bakan argitaratzen dira: hauek "aldabekariak" erreinua osatzen dute (ikus 4. grafikoa).

4. grafikoa



Bihilero baino bakanago argitaratzen direnen multzoak hartzen ditu aldizkari gehien. Hurrengo taulan (ikus 3. taula), bakanago deitzen dugun multzoan bateratu ditugu sei hilabetekariak, lauhilabetekariak eta hiruhilabetekariak. Taula horretan ikus daitezkeen moduan, astekariak, hamabostekariak, hilabetekariak eta bihilabetekariak batuta baino askoz handiagoa da bakanagoko multzoa: %55. Aldizkari kopuruan bigarren diren hilerokoak %24 inguruan daude.

3. taula: Argitalpenen maiztasuna (ehunekotan)

Maiztasuna	1960 arte	1960-1984	1985-1989	1990-1994	1995-1999
Astero	5	6	13	9	6
Hamabostero	11	8	4	7	6
Hilero	41	20	15	22	24
Bihilero	11	9	6	6	9
Bakanago	32	57	62	56	55
GUZTIRA	100	100	100	100	100

Zenbat aldizkari argitaratzen diren erakusten dugu taula horretan, eta ez izan dezaketen zabalkundea; izan ere, hauetako askok oso tirada txikia dute, hala nola, eskoletako prentsako aldizkari gehienek. Horrela, beste laurdenak, bihilabetero, astero eta hamabostero banatzen direnak, aldizkari kopuru txikiagoa izan arren, askoz tirada handiagoa du, eta, beraz, garrantzi handia hartzen dute aldizkariok.

5.3.2. ARGITALPENEN TIRADA

Tirada hartzen badugu, berriz, lehen 24etan, *Euskaldunon Egunkaria* kanpo utzita, bost astekari, bi hamabostekari, zazpi hilabetekari, lau bihilabetekari, hiruhilabetekari bat, lau lauhilabetekari eta sei hilabetekari bat agertzen zaizkigu.

Gaur egun argitaratzen diren 178 aldizkariak horrela sailka daitezke: 2.500 aleko tirada baino txikiagoa dutenak, 119 aldizkari; 2.500 eta 5.000 bitarteko aleko tirada dutenak, 35 aldizkari; eta 5.000 ale baino tirada handiagoa dutenak, 24 aldizkari. Beraz, aldizkariaren %67k 2.500 ale baino gutxiagoko tirada daukate.

Hortaz, maiztasuna hartu edo tirada hartu, ikuspegia aldatu egiten da. Aldizkariaren zabalkundearen alderaketa egin ahal izateko, argi dago maiztasunaren eta tiradaren datuak garrantzitsuak direla; baina, bi datu horiek batera hartu behar dira alderaketa egin ahal izateko.

5.3.3. EUSKARAZKO ALDIZKARIEN ZABALKUNDEA

Errolda egiteko garaian ahalik eta aldizkari gehien biltzen saiatu gara. Baina, zabalkundearen estatistikarako, aldizkari guztien garrantzia eta esanahia ez da bera. Horregatik, zabalkundea ezagutzen laguntzeko, adierazgarri izan daitekeen muga bat jarri dugu, lehenago egindako azterketa batean²² erabili

22. MUXIKA, Joxemari. "Gaztelaniaz idatzitako prentsaren zabalkundea Hego Euskal Herrian". *Mediatika* (7. zenb), Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1999.

genuen iritzi bera erabiliaz: aldizkari bakoitzak urtean 24.000 ale zabaltzea, maiztasuna eta tirada kontuan hartuta. Beraz, bakan argitaratu arren, tirada handia badu, neurrira iritsi daiteke; eta baita tirada txikia izan arren, maiztasun handia badu ere. Emaitzak 4. taulan ikus daitezke. Taula horretan, aldizkaria ez izan arren, euskarazko eguneroko bakarra den *Euskaldunon Egunkaria* ere sartu dugu erreferentzi gisa erabili ahal izateko.

4. taula: Urtean 24.000 aletik gorako zabalkundea duten aldizkariak

4.1. taula: EGUNERO			
ALDIZKARIAK	HERRIALDEA ²³	ALDIKO TIRADA	URTEKO TIRADA
Egunkaria	G	13.059	4.048.290
4.2. taula: ASTERO			
<i>BEREZIAK</i>			
Argia	G	10.000	440.000
Zabalik	G	6.000	264.000
GUZTIRA			704.000
<i>HURBILEKOAK</i>			
Eta Kitto	G	7.100	312.400
Arrasate Press	G	6.400	281.600
Berrigara	G	5.100	224.400
Irutxulo	G	5.000	220.000
Barren	G	4.000	176.000
Eraz	B	3.000	132.000
Herria	I	3.000	132.000
GUZTIRA			1.478.400
4.3. taula: HAMABOSTERO			
<i>HURBILEKOAK</i>			
Ttipi-Ttapa	N	8.000	176.000
Goierritarra	G	6.800	149.600
Txintxarri	G	4.000	88.000
Aiurri	G	3.500	77.000
Aretxagazeta	G	2.500	55.000
Akatz	B	2.300	50.600
Noaua!	G	2.300	50.600
GUZTIRA			646.800

23. Aldizkaria zein herrialdetakoa den adierazteko, herrialde bakoitzaren iniziala agertzen da; hau da: A (Araba), B (Bizkaia), G (Gipuzkoa), I (Iparraldea) eta N (Nafarroa)

4.4. taula: HILABETERO			
ALDIZKARIAK	HERRIALDEA	ALDIKO TIRADA	URTEKO TIRADA
<i>BEREZIAK</i>			
Ikastola	G	43.500	478.500
Aizu	B	15.000	165.000
Gaztetxulo	G	10.000	110.000
Kili-Kili	B	6.000	66.000
Hik Hasi	G	5.000	55.000
Atzoko Andoain ...	G	3.000	33.000
Ipurbeltz	G	2.500	27.500
Elhuyar-2	G	2.100	23.100
GUZTIRA			958.100
<i>BERRIPAPERAK</i>			
Euskararen Berri.	A	13.000	143.000
Karrika	N	3.500	38.500
GUZTIRA			181.500
<i>HURBILEKOAK</i>			
Berrietan Blai	B	6.000	66.000
Galtzaundi	G	5.500	60.500
UK	B	5.000	55.000
Uztarria	G	4.500	49.500
Kontzejupetik	G	3.800	41.800
Arranondo	B	3.500	38.500
Azpeitian Zer	G	3.500	38.500
Irunero	G	3.500	38.500
Guaixe	N	3.200	35.200
Branka	G	2.500	27.500
Geu Gasteiz	A	2.500	27.500
Karkara	G	2.500	27.500
Lau Haizetara	G	2.500	27.500
Ze Berri	G	2.500	27.500
GUZTIRA			561.000
4.5. taula: BIHILABETERO			
<i>BEREZIAK</i>			
Administrazioa Eus.	A	10.000	60.000
Euskaltzale	B	8.000	48.000
Etzetik Plazara	N	7.100	42.600
GUZTIRA			150.600
<i>HURBILEKOAK</i>			
Txoriberri	B	6.000	36.000

4.6. taula: BIHILABETEKARIAK BAINO BAKANAGO			
ALDIZKARIAK	HERRIALDEA	ALDIKO TIRADA	URTEKO TIRADA
<i>BEREZIAK</i>			
Jatun Sunqu ²⁴		55.000	165.000
Arkupe	G	9.000	27.000
Galtzatxiki	G	5.500	22.000
GUZTIRA			214.000
<i>BERRIPAPERAK</i>			
Uema	B	19.000	38.000
Seine	B	7.500	22.500
GUZTIRA			60.500
<i>ESKOLETAKOAK</i>			
Auzoka	G	7.800	23.400
GUZTIRA²⁵			5.014.300

Urteko tiradaren aldetik, jarritako mugaren barnean sartzen diren aldizkariak 50 dira, *Euskaldunon Egunkaria* kanpo utzita.

Beste 128 aldizkari ere argitaratzen dira, baina hauek ez dira iristen aurrez jarritako zabalkundera. Kopuru handiak izanik, egoki ikusi dugu euren zabalkundera ezagutaraztea. Horretarako, gaiaren arabeko multzoetan bateratu ditugu (ikus 5. taula).

5. taula: Urtean 24.000 aletik beherako tirada duten aldizkarien zabalkundera

(hilabetekariak, bihilabetekariak eta bakanagokoak)

ALDIZKARIAK MULTZOKA

HILABETEKARIAK						
	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	IPARRALDEA	NAFARROA	URTEKO
BEREZIAK (5)		14.300 (1)	45.430 (4)			59.730
BERRIPAPERAK (2)		11.000 (1)	13.200 (1)			24.200
ESKOLETAKOAK (1)			14.850 (1)			14.850
HURBILEKOAK (11)		45.100 (3)	97.350 (7)		14.300 (1)	156.750
BIHILABETEKARIAK						
	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	IPARRALDEA	NAFARROA	URTEKO
BEREZIAK (7)		26.400 (2)	65.100 (5)			91.500
BERRIPAPERAK (5)		15.000 (2)	16.200 (3)			31.200
ESKOLETAKOAK (0)						
HURBILEKOAK (3)		6.000 (1)	11.400 (2)			17.400

24. Euskal Herritik kanpo argitaratua.

25. *Euskaldunon Egunkaria* batuketatik kanpo utzi dugu.

BIHILABETEKARIAK BAINO BAKANAGO						
	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	IPARRALDEA	NAFARROA	URTEKO
BEREZIAK (34)	500 (1)	24.400 (7)	85.200 (22)	4.200 (2)	6.240 (2)	120.540
BERRIPAPERAK (15)		4.620 (3)	31.650 (11)		3.000 (1)	39.270
ESKOLETAKOAK (32)	6.300 (2)	11.320 (8)	40.650 (18)	330 (1)	7.320 (3)	65.920
HURBILEKOAK (12)		39.200 (7)	12.750 (2)		15.800 (3)	67.750

Argi geratzen denez, hauen zabalkundea oso urria da: 128 aldizkari izan arren -guztietatik %72-, zabalkunde osoaren %12 hartzen dute. Zabalkunde txikia dute, baina eragina izan dezakete, eremu txiki batean zabaltzen dira-eta. Hurbileko aldizkari askoren kasuan kontzentrazio bat ematen da biztanleria txikia hartzen dutelako, euren eremua udalerrria izanik. Beraz, inpaktoarena eta zabalkundearena xede ezberdineko azterketak dira, elkarrengandik bereizi beharrekoak.

5.4. Aldizkarien zabalkundea gaika alderatuta

Egungo egoeraz aritu garen atalean ikusi dugu aldizkari kopuruen artean alde handiak daudela herrialde batetik bestera. Zabalkundearen ikuspegitik ere aldeak handiak dira. Orokorrean, zentzu bera gordetzen dute. Gipuzkoaren gailentasuna agertzen da. Argitaratzen diren aldizkari guztien zabalkundearen %68 Gipuzkoan argitaratutakoena da (ikus 6. taula).

6. taula: Euskaraz idatzitako aldizkarien zabalkundea, herrialdeka

HERRIALDEA	ZENBAT ALDIZKARI	ALDIKO TIRADA	URTEKO TIRADA
Araba	6	27.850	237.300
Bizkaia	46	121.985	914.940
Gipuzkoa	107	266.180	3.910.680
Iparraldea	4	4.510	136.530
Nafarroa	14	32.070	338.960
EH-tik kanpo	1	55.000	165.000
GUZTIRA	178	507.595	5.703.410

Kontuan izan behar da aldizkaria argitaratzen den herrialdea eta berau zabaltzen deneko herrialdea ez dela beti berbera. Non zabaltzen diren ez dakigu, baina bereziak edo berripaperak ez bezala, ez dute-eta eremu mugatua, eskoletako prentsa eta hurbilekoari dagozkien aldizkariak argitaratzen diren ingurune berean banatzen dira. Gaien araberako sailkapenari buruzko banaketa hurrengo taulan ikusiko dugu (ikus 7. taula).

7. taula: Gaien araberako multzoen zabalkundea

GAIAK	ASTERO	HAMABOST.	HILABETERO	BAKANAGO	TXIKIAK	GUZTIRA	%
Bereziak	704.000		958.100	364.600	271.770	2.298.470	40
Berripaperak			181.500	60.500	94.670	336.670	6
Eskoletakoak				23.400	80.770	104.170	2
Hurbilekoak	1.478.400	646.800	561.000	36.000	241.900	2.964.100	52
GUZTIRA	2.182.400	646.800	1.700.600	484.500	689.110	5.703.410	100

Eskoletako prentsaren tiradak eta maiztasunak ematen duen zabalkundea urria da, guztiaren %2. Hurbileko aldizkarien zabalkunde guztiaren %52koa da. Hauek berezien %40 gainditzen dute. Ia hiru milioiko zabalkundea dute, eta hauetan ere, lehen adierazi dugun bezala, gehienak Gipuzkoako herrietan zabaltzen dira.

5.5. Finantzaketari buruzko bereizketak

Finantzaketa aldetik aldizkarien artean ezberdintasunak agertzen dira. Eskoletako prentsa eta berripaperak doan banatzen dira. Erakundeek euren gain hartzen dute finantzaketa, batzuek diru laguntzekin, eta beste batzuek laguntza gabe. Berezien multzoan sartu ditugun gehienak saldu egiten dira. Orokorean, oso publizitate gutxi lortzen dute. Diru laguntzak jasotzen dituzte.

Hurbileko aldizkariak beste finantzaketa eredu bat dute. Lortu dugun informazioarekin hurbilpen bat besterik ez dugu egingo. Aldizkari hauek doan banatzen dira eta bakarren batzuek harpidetza kuota txiki bat dute. Publizitatearekin diru sarrera garrantzitsua lortzen dute: aldizkari batzuek %34 betetzen dute iragarkiekin, eta hauekin diru sarreraren %47 lortzen dute. Diru laguntza publikoak ere garrantzitsuak dira. Foru aldundiek, Jaurilaritzak eta udalek ematen duten diru laguntzarekin % 46ra iristen dira. Hau ez da aldizkari guztietan berdin gertatzen. Batzuetan euskara elkartearen gestioa dela, edo beste batzuetan diputazioen eta udalen politika dela, alde nabariak daude herrialdeko herrialdera, eta baita herri batetik bestera ere. Euskaraz idatzitako hurbileko aldizkarien arloan, Bizkaiko herrialdea da, diru laguntza aldetik, hutsunerik nabariena azaltzen duena.

6. BIBLIOGRAFIA

AKESOLO, Lino eta LOBERA, Angel. "Kultura". *Karmel* (210. zenb.), Markina-Xemein: Itxaropena, 1994; 3-111 orr.

Aldizkako argitalpenen Katalogoa, Donostia: HABE Liburutegia, 1998.

ARANBURU Y SAGARZAZU, Javier de. "Medios de comunicación social 1939-1984". *Euskal Herria errealtate eta egitasmu-errealidad y proyecto*, Arrasate: Euskadiko Kutxa, 1985; 464-474 orr.

- ARANGUREN, Asier. "Gutxi baina onenak". *Eusko News & Media* (26. zenb.), Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1998.
- ARANZABAL, Joxe. "Euskal komunikabideak". *Jazten* (3. zenb.), Arrasate: AED, 1990.
- ARANZABAL, Joxe. "Euskarazko herri prentsaren bilakaera". *Eusko News & Media* (8. zenb.), Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1998.
- ARANZABAL, Joxe. "Herri aldizkari baten taxuketa". *Jakin* (1992ko martxo-apirilko zenb.), Donostia: Jakin, 1992.
- BASTERRETXE, Jose Inazio. *Komunikazioaren eta Informazioaren Oinarriak*, Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea, 1998.
- CANTALAPIEDRA, Maria Pilar. *La información local en los periódicos de Bizkaia*, Leioa: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, 1996.
- Catálogo de publicaciones periódicas de la Biblioteca de los Benedictinos de Lazkao*, Lazkao: Biblioteca Benedictinos Lazkao, 1996.
- DIAZ DE TUESTA, Jose Felix. *Euskarazko prentsa idatzia*, Arrasate, 1996 (Euskararen Aholku Batzordearen enkarguz egindako txostena, argitaratu gabea).
- DIAZ DE TUESTA, Jose Felix. "Kalitatea, euskarazko herri komunikabideen erronka". *Eusko News & Media* (8. zenb.), Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1998.
- DIAZ NOCI, Javier. *Euskal prentsaren sorrera eta garapena (1834-1939)*, Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1995.
- DIAZ NOCI, Javier. *Euskarazko aldizkari, egutegi eta almanaken errolda (1834-1959)*, Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1994.
- DIAZ NOCI, Javier. "Publicaciones periódicas en lengua vasca en la Biblioteca de Estudios Vascos de la Universidad de Reno, Nevada". *Mediatika* (7. zenb.), Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1999.
- DIEZHANDINO, Mari Pilar. *El quehacer informativo*, Leioa: Euskal Herriko Unibertsitatea, 1994.
- DIEZHANDINO, Maria Pilar; COCA, Cesar y BEZUNARTEA, Ofa. *La nueva información. Análisis de la evolución temática de los contenidos de la prensa vasca (1974-1995)*, Leioa: Euskal Herriko Unibertsitatea, 1996.
- ELKOROBEREZIBAR, Migel Angel. "Publizitatea euskarazko herri aldizkaritan". *Herri Komunikabideei Buruzko II. Jardunaldiak*, Arrasate: ARKO, 1993.
- Inguruak* (20. zenb.), Leioa: Euskal Soziologoien Elkarte-EHU, 1998.
- Euskal kulturaren urtekaria* 98, Lasarte-Oria: Argia, 1998.
- Euskararen Berripapera* (98. zenb.), Vitoria/Gasteiz: Hizkutz Politikarako Sailordetza, 1998.
- Herri Komunikabideei Buruzko I. Jardunaldiak*, Arrasate: ARKO, 1991.
- Herri Komunikabideei Buruzko II. Jardunaldiak*, Arrasate: ARKO, 1993.
- Herri Komunikabideei Buruzko III. Jardunaldiak*, Arrasate: ARKO, 1998.
- "Jakin-en historia". *Jakin* (116-117. zenb.), Donostia: Jakin, 2000.
- LARRAÑAGA, Jotxo; GARBANTXO, Miren; ARANGUREN, Asier. "Sei herri aldizkari: edukin azterketaren bidetik hurbilketa bat". *Mediatika* (6. zenb.), Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1997.
- MUNIOZGUREN, Fernando. "Eremu urriko euskal prentsaren bideetan barrena". *Jakin* (103. zenb.), Donostia: Jakin, 1997.

MUXIKA, Joxemari. "Gaztelaniaz idatzitako prentsaren zabalkundea Hego Euskal Herrian". *Mediatika* (7. zenb.), Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1999.

OREGI, Sabin. "Euskarazko herri prentsa. Banaketa eta finantzaketara hurbilpena". *Mediateka* (6. zenb.), Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1997.

RUIZ DE GAUNA, Adolfo. *Catálogo de Publicaciones Periódicas vascas de los siglos XIX y XX*, Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1991.

Sailkako Argitalpenen Katalogoa-Catálogo de Publicaciones Seriadas, Koldo Mitxelena Kulturunea, Liburutegia-Biblioteca, Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, 1996.

SANZ DE ORMAZABAL, Iñigo. *De libros y bibliotecas. Sobre Biblioteconomía, Bibliografía e Historia del Libro en Euskalerra*, Vitoria/Gasteiz: GV-EJko Kultura Saila, 1992; 415-515 orr.

Topaberi (4. zenb.), Durango: Euskara Elkarte eta Herri Aldizkarien Topagunea, 1998; 4. or.

TORREALDAI, Joan Mari. *Euskal idazleak, gaur. Historia social de la lengua y literatura vascas*. Oñati-Arantzazu: Jakin, 1977; 514-536 orr.

TORREALDAI, Joan Mari. *Euskal Kultura Gaur. Liburuaren mundua*, Donostia: Jakin, 1997; 106-111 orr.